



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 19koa, euskal herri administrazioek Gran Enara aztarnategian apurketa hidraulikoaren sistemaren bidez hidrokarburoak esploratzeko eta ondoren erauzteko proiektuan izandako esku-hartzeari buruzkoa.**

### Aurrekariak

1. **Gasa esploratzeko proiektua Araban eta gizarte kezka.** Arabako lur-azpian ez ohiko gasa esploratzea eta ondoren erauztea 2011ko urrian gertatutako ekimen publikoa da. Une hartan Eusko Jaurlaritzak komunikabideei helarazi zien gasa apurketa hidraulikoaren sistema *-fracking* gisa ezagutzen dena-erabiliz lortzeko aukera aztertzeko erabakia hartu zuela.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Hidrokarburo Baltzua, A.B. (SHESA) enpresak sustatutako proiektua iragarri zuen Gran Enara gisa ezagutzen den aztarnategian, Araba eta Burgos tartean, kokatutako ez ohiko gas erreserba esploratzeko. SHESA Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) sortutako enpresa publikoa da. Herri administrazio horren datuen arabera, gas erreserba ustiagarriek 185 bilioi metro kubikotara helduko lirateke.

Gas esplorazio eta erauzketa proiektu horrek 2006ko azaroan Estatuko Administrazioari Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak SHESAri emandako "Enara" hidrokarburoak ikertzeko baimenean du bere jatorria. Ikerketa eta esplorazio fasearen barnean 16 esplorazio-putzu zulatzea aurreikusita zegoen. 2011ko urrian SHESAk iragarri zuen epe laburrean ez ohiko gasaren esplorazioarekin hasiko zela "Enara 16" putzuan -bertatik bi ikerketa zundaketa egingo ziren- eta "Enara 4" putzuan, biak Gasteizen.

Berri horrek hainbat elkarte ekologisten erantzuna sortu zuen, berehala aldarrikatu baitzuten erabaki horren ingurumen inpaktuarekiko euren kezka<sup>1</sup>. Bereziki, elkarteek zulaketa horizontala eta gas erreserbak biltzen dituen arroka apurketa hidraulikoa eskatzen duen gas erauzketa sistema erabiltzea salatzen zuten, baita erauzketa fasean ez ohiko gas-hobiak hartzen duen eremuan zehar banatuta dauden putzu kopuru handia zulatzeko aurreikuspenak ere.

---

<sup>1</sup> Talde ekologistek kontu hau salatzeke erabili zituzten hainbat iturri gaineratu ditugu. <http://www.ekologistakmartxan.org/article21548.html>  
<http://www.greenpeace.org/espana/es/Blog/no-necesitamos-el-fracking/blog/35291/>



2. **Arartekoaren jarduerak** Gizarte kezka hori baloratu ahal izateko, erakunde honek egokitzen jo zuen ofiziozko espediente bat hastea -74/2011/23 O- eta hartutako erabakien aurrean euskal administrazioek izandako esku-hartzea, "Gran Enara" ikerketa baimena onartzeko jarraitutako izapideak, Araban aurreikusitako zundaketa putzuak eta, bereziki, gas erauzketako sistema hau xedatzen duten plan eta programen inguruan bideratutako ingurumen ebaluazioa aztertzea.
3. **"Fracking ez Araba" Plataformaren kexa.** Bestalde, erakunde honek "Fracking Ez Araba" plataforma gisa eratutako pertsona talde batek sustatutako kexa jaso zuen. Bertan Euskadiko Hidrokarburo Baltzua, A.B. (SHESA) enpresak "Enara" hidrokarburoak ikertzeko baimenaren barnean Araban sustatzen ari zen ez ohiko gasa esploratzeko eta ondoren erauzteko aurreikuspenen inguruko euren kezka helarazi ziguten.
- 4 **Egoeraren azterketa.** Erreklamazio horren inguruan egin dugun azterketak gasa esploratzeko eta erauzteko proiektuan esku hartzen duten euskal administrazioen erabaki esparruarekin lotutako hainbat kontu biltzen ditu.

A) Ingurumenerako eta herritarren osasunerako inpaktua eta arriskuak. Plataformak aurkitutako gas erreserbak erauzteko aurreikusitako metodoarekiko desadostasuna adierazi zuen, ingurumenean eta giza osasunean sor ditzakeen kalteak zirela-eta. Zehazki azaldu duenez, sistema horrek arroka leherketa txikien bidez apurtzea eta ondoren hainbat gehigarri eta produktu kimikoak dituen presiopeko ura injektatuz estimulatzea eskatzen du. Sistema horrek inguru naturalerako arrisku batzuk eragiten ditu (adibidez, Subijanakoa akuiferoaren gaineko eragina); izan ere, jaurtitzen den nahasteko produktuek nahiz ateratzen den metanoak akuiferoa kutsa lezake. Horrez gain, aipatzekoa da agian lur-dardara txikiak eragin litezkeela eta jaurtitako fluxua gal litekeela (%20 eta %85 bitartean), eta, era berean, berreskuratutako itzulera-fluxuaren hondakinen kudeaketa, azalerako baltsa-biltegieta pilotutakoak. Bestalde, atmosferara berotegi-efektuko gasak isurtzearen arrisku klimatikoak aipatu ditu, aurreikuspenen arabera teknologia hori erabiltzean %6ko galera egongo baita.

B) Euskadiko plangintza energetikoaren ingurumen-ebaluazioa. Alde batetik, plataformak zalantza jarri du erauzketa-sistema hori erabiltzea aurreikusten duen planak edo programak ingurumenean izan lezakeen inpaktuari buruzko ebaluazio egokia. Kontu horren inguruan aipatu duenez, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Estrategia Energetikoa 2020 onartu du —2011ko abenduko Gobernu Kontseilua—, eta bere jarduera-lerroen artean barne hartu du Kantauri itsasoko ertzeko ez-ohiko gas-hobiak esploratzea eta ustiatzea. Estrategia hori Euskadiko energia-plangintzara dago zuzenduta, eta hobi horiek garatu eta



ustiatzea ahalbidetzen duten metodoak erabiltzeko esplorazio-lanak barne hartzen ditu. Planen eta programen ingurumen-ebaluazioa egitea garrantzitsua da; izan ere, plan, programa edo politika publiko horiek aplikatzearekin lotutako ingurumen-iraunkortasuna ebaluatu behar da, eta, era berean, nahitaezkoa da zentzuzko beste aukera batzuk —teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak direnak, eta zero aukera barne— kontuan hartzea.

Hitz horiekin, Plataformak aipatzen du Eusko Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 2an egin zuen bilkuran, mozio bat onartu zuela eta horren bidez Eusko Jaurlaritzari eskatu ziola —estrategia energetikoaren sustatzaile gisa— Euskadiko 2020 Energia Estrategiaren barruan jasota dagoen metodo horren bidez hidrokarburoak esploratzeko planaren edo programaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ofizioz hasi zezala.

C) Herritarren parte-hartzea. Bigarrenik, kexak aipatzen du herritarren parte-hartze desegokia egon dela erabaki estrategikoa hartzeko prozesuan, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan zalantzan jarri den ez ohiko gasean oinarritutako apustu energetikoa gaineratzen duenean. Herrialde batek baino gehiagok zatiketa hidraulikoaren erabilpena atzeratzea erabaki dute, eta kasurik garrantzitsuena Frantzia izan da.

Plataformak azpimarratzen du garrantzitsua dela gaia gizartean eztabaidatzea, plan horietan eta gasa erazteko metodo horren esparrua edo hura martxan jartzea ahalbidetzen duten politiketan interesatutako pertsonak benetan parte har dezaten.

Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Industria Saila izan da estrategia energetikoa finkatu duen organoa, plataformaren arabera, ez ohiko gas-hobi horiek esploratu eta ustiatzeko proposamenari buruz nahitaezkoa den gizarte, ingurumen eta ekonomia eztabaidarik egin gabe. Testuinguru horretan azaltzen dutenez, ingurumenean inpaktua duten planak eta programak landu eta onesteak (adibidez, aipatutako energia-estrategia) gai honen ingurumen-ebaluazioa egiteko aukera eman behar dute, baita ingurumenarekin lotuta dauden eta gai honen inguruko kezka agertu duten elkarten parte-hartzerako mekanismoak ezartzeko ere.

D) Zulaketa zundaketen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa. Agertutako beste kontu batek Enara baimenean putzuak zulatzeko proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenari buruzko araudiaren aplikazio falta aipatzen du.

Aurkeztutako erreklamazioaren arabera, Enara ikerketa baimenean babestutako putzuen zulaketa xedapenek (Enara 16 -A eta B- eta Enara 4), ingurumenari



buruzko euskal legeriaren esparruan, ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioa eskatu beharko lukete. Hala eta guztiz ere, kasu honetan, ikerketa baimena autonomia erkidegoaren lurralde eremutik zabaltzean, Ingurumen, Landa eta Itsas Inguruko Ministerioa (Ingurumen Ministerioa) izan da estatuko legeriaren arabera ingurumen ebaluazioaren beharra zehazteko eskumena izan duen organoa.

E) Esplorazio proiektuak zatitzea. Nolanahi ere, plataformak zulaketa proiektuen zatikapena zalantzan jartzen du. Hau da, 2008ko abenduaren 10ean helarazitako proiektuaren arabera, hasieran hamasei hobi zulatzea aurreikusten zen, eta SHESAK horietako hamabost baztertzen zituen proposamen bat aurkeztu zuen, hau da, Enara 16n hobi bakarria zulatzea aurreikusten zuen proposamen bat.

Plataformaren iritziz, zundaketa guztien inpaktuen pilaketa kontuan hartzen duen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eskatzea ezinbestekoa da.

Horregatik, plataformak uste du SHESAK proiektu honen osotasunaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eskatu behar izan zuela, azkenean proiektatutako putzu guztiak barne hartuta.

5. **Kexen eragina zuten herri administrazioek erreklamazioari emandako erantzuna.** Jarduera horiek behar bezala baloratze aldera, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Ingurumen Sailei, Arabako Foru Aldundiari eta Gasteizko Udalarari informazioa eskatu genien.

– **Eusko Jaurlaritzak, Industria Sailaren eta Ingurumen Sailaren** bidez, erauzketa sistema horri buruzko eta egun arte jarraitutako prozedurei buruzko txostena bidali digu. Era berean, bi sailetako ordezkariak Arartekoarekin bilera bat izan zuten bidalitako erantzuna erraztu eta argitzeko.

Txostenaren arabera, Euskadiko Estrategia Energetikoa 2020 (EEE 2020) delakoak ez du ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik jaso indarreko legeriaren arabera. Eusko Jaurlaritzako ingurumeneko organoak aipatu dituen arrazoiak izan dira ez gaudela legezko edo arauzko xedapen batek eskatutako agiri baten aurrean, izan ere, estrategia hori izaera politikoko agiri bat da. Era berean, tresna hori ez da etorkizunean inpaktuaren ebaluazioaren mende egongo den proiektu baten baimenerako esparrua. Hala eta guztiz ere, Ingurumen Sailak uste izan du, ingurumenean duen garrantzia kontuan hartuta, gomendagarria litzatekeela Ingurumen Sailak berak inpaktuaren azterketa eta ingurumen-balorazioa burutzea. Zentzu horretan, Industria Sailak Euskadiko Estrategia Energetikoa 2020aren "ingurumen memoria" izeneko agiria bidali zuen. Era berean, Ingurumen Sailak EEE 2020aren ingurumen-ebaluazio txostena burutu





zuen. Bertan, estrategiaren ingurumen-balorazioa egin zuen eta agiri laburtu batean gaineratu beharreko hainbat hobekuntza proposamen helarazi zituen. Gomendio horiek Industria Sailak 2011ko abenduaren 18an egindako behin betiko ingurumen memorian jaso ziren.

Gran Enara baimenean hidrokarburoen esplorazio putzuen baimenari dagokionez, bi administrazioek jakinarazi ziguten ez dutela esku hartu prozedura horretan, proiektuak komunitateaz gaindiko izaera baitauka, izan ere, Estatuko Administrazio Orokorrean eskumena duten sailen esku-hartzea beharrezkoa da. Nolanahi ere, txostenak azaltzen duenez, sustatzaileak, SHESA kapital publikoko enpresak, Ingurumen Ministerioari hidrokarburoak esploratzeko hasierako 16 putzuen -Enara 1-16 zundaketak- proiektuaren ingurumeneko agiriak bidali zizkion, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio prozedura baten mende jartzeko beharra zehazteko ustezko hainbat kokalekuk Natura 2000 Sarean eragina izan zezaketelako. 2009ko uztailan SHESAk 15 putzu zulatzeari uko egin zion eta Enara 16 izenekoa mantendu zuen. Aldaketa horren ondoren, Ingurumen Ministerioak, 2010eko martxoaren 1eko ebazpen bidez, Enara 16ko bi putzuen proiektu hori ingurumen-inpaktuaren ebaluazio baten mende ez jartzea erabaki zuen. Horren ondoren, SHESAk berriro ere ingurumen organoari Enara 4 esplorazio putzua zulatzeko proiektuaren ingurumen-ebaluazioa burutzeko beharra ote dagoen galdetu dio. Ingurumeneko organoak berriro ere, 2011ko azaroaren 21eko ebazpenaren bidez, ondorioztatu du, ebazpenak aipatzen dituen ingurumeneko baldintzak jarraituz, ez dela aurreikusten proiektuak inpaktu kaltegarri nabarmenak izan ditzakeenik, beraz, ez du II Eren behar. Ebazpen horren kaltetan izan gabe, ingurumeneko edozein ustezko kalte saihesteko, ingurumeneko organoak ustezko ingurumen eraginak gutxitzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri ditu.

Kasu honetan, bi sailek azpimarratu dute proiektuak hainbat esplorazio-zundaketa proposatzen dituela dagoen gas naturaleko hobia apurketa hidraulikoko teknikaren bidez erauztea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria den jakiteko.

Txostenak apurketa hidraulikoko prozesuan erabilitako produktu eta gehigarri kimikoak aipatzen ditu, nolanahi ere, CE 1907/2006 REACH araudia betetzen dutela bermatu beharko dutenak. Teknika horretatik sor daitekeen aldaketa klimatikorako inpaktuari dagokionez, txostenak aipatzen du apurketaren teknikaren inpaktua gas naturala erauzteko ohiko teknikaren inpaktua baino zertxobait handiagoa dela eta, nolanahi ere, ikatzaren inpaktua baino askoz ere txikiagoa.

Eskainitako herritarren parte-hartzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak proiektuen II Eren aurretiko kontsultak izapidetzeko jarraitutako izapideak eta



EEE 2020 onartzeko bideratutako parte-hartze prozesuak aipatu ditu. Era berean, prebentzioso izaerako beste esplorazio-zundaketaren bat egitea aurreikusita dagoela baieztatu du. Erauzketa putzuetako batek IIE beharko duelakoan daude. Eusko Jaurlaritzak interesa duten erakunde eta administrazioek egindako topaketak eta foroak aipatu ditu. Horrela bada, erakunde arteko batzorde bat sortu da eta bertan Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko gai honekin loturiko sailek eta baimenen eragina jaso duten udalek parte hartzen dute. Aurreikusi denez, batzorde horretan alderdi politikoak eta intereseko beste talde batzuk gaineratuko dira informazio eta iritzi trukerako esparru gisa. Era berean, ez ohiko gas naturalaren inguruko jardunaldi teknikoak egitea erabaki da, 2012ko apirilean bideratuko direnak.

– **Gasteizko Udalak** Enara 1 eta 2 (Enara 16ren izen berria) zundaketen kokalekurako baimena emateko dagokion udal jardueraren lizentzia izapidetzeko jarraitutako udal jarduerari buruzko informazioa bidali digu, baita Enara 4 eta Enara 5eko putzuen IIeren prozeduraren inguruan aurkeztutako txosten eta errekurtsioei buruzko informazioa ere. Ingurumen eta Espazio Publikoko Sailak kontrako txostena eman du eta Enara 1 eta 2ko zundaketei buruzko informazio osagarria aurkeztea eskatu du, izan ere, bere ustez, aurkeztutako agiriak ez dute bermatzen inguru fisiko biologikoaren eta baliabide naturalen gaineko inpaktu jasanezinak eragingo ez direnik. Era berean, beharrezkotzat jotzen du bi esplorazio putzu horiek zulatzeko proiektu horren eragin sinergikoa eta metagarria ebaluatzea ikerketa baimenean proiektatutako beste jarduerekin.

– **Arabako Foru Aldundiko** Ingurumen eta Hirigintza Sailak txosten bat bideratu du Enara 1 eta 2 putzuen jarduera lizentzia izapidetu bitartean. Bertan, sustatzaileari ingurumeneko arriskuak eta eraginak identifikatzeko eta ebaluatzeko eskaintako agiriak osatu ditzan eskatzeko beharra aipatzen du. Era berean, foru sail horrek alegazioak aurkeztu ditu Ingurumen Ministerioak hasitako kontsulta fasean zehar Enara 5, Enara 7 eta Enara 11 zundaketen IIE beharra baloratzeko. Txosten horietan proiektu horien ingurumen-inpaktuaren ebaluazioarekin jarraitu dadila gomendatzen du. Era berean, Gran Enara hobian unera arte egindako prospekzioek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioen azterketa burutzeke dagoela aipatu du.

6. **Beste kontu batzuk.** Horren ondoren, 2012ko apirilaren 23an, 24an eta 25ean Gasteizen ez ohiko gasaren inguruan iragarritako Jardunaldi Teknikoak bideratu zirela aipatu behar dugu. Jardunaldi horiek euskal herri administrazioek sustatu zituzten. Biler horietan ez ohiko gasa erauzteko sistema horren inguruko ikuspuntu ezberdinak ezagutarazi ziren. Halaber, herri administrazioek, erakunde ordezkariak duten alderdi politikoek eta ekimen horren aurkako elkarte eta plataformek euren ikuspuntua adierazi ahal izan zuten.



Era berean, aipatu beharra dugu Gasteizko Udalak 2012ko irailean Enara 1 eta Enara 2 putzuetako obra eta jarduera lizentziaren baimenak ukatu dituela eskatutako informazioa aurkeztu ez izanagatik.

Erreklamazio horiek ikusita, kexen eta alor honetan eskumena duten administrazio ezberdinek bidalitako informazioaren planteamendua aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honakoak zuri helaraztea:

### Gogoetak

#### **Sarrera**

Ebazpen honen bidez Arartekoak Euskadin dauden hobietan kokatutako ez ohiko gasa esploratu eta erauztean apurketa hidraulikoko sistema erabiltzera bideratutako euskal herri administrazioen jardueren aurrean hasitako kexa-jarduera ezberdinak aztertzea da.

Uneko ikerketa proiektuak, esplorazio fasean, SHESA enpresa publikoak "Enara" hobian lortutako baimenetan du jatorria eta datorren 2010-2020 hamarkadarako Euskadiko estrategia energetikoan gaineratuta dago. Une honetan izapidetze fasean daude Arabako Lurralde Historikoan hainba zundaketa esploratzeko baimenak. Baimen horietako batzuk, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde esparrua gainditzen duen lur-azpiko hobiaren kokapenaren ondorioz, Estatuko Administrazioari dagozkio.

Ebazpen honetan euskal herri administrazioen erabaki eta jardueretan jarriko dugu arreta, bai autonomia mailako irismeneko jarduera energetikoa antolatzeke hainbat plan eta programen gaineko ingurumeneko kontrolaren esparruari dagokionez, bai ez ohiko gasaren ikerketa eta esplorazioa bultzatzen duten erabakiak hartzeari dagokionez.

Aldez aurretik, apurketa hidraulikoaren bidez ez ohiko gasa erauzteko sistema eztabaidagarriaren inguruko azterketa orokorra egingo dugu.

Ebazpen honen **lehen zatian** sistema horren inguruko gogoeta egingo dugu, haren testuinguru historikoa eta gaur egungoa, ingurumenean eta osasun publikoan duen inpaktua eta politika energetikoak eta aldaketa klimatikoaren kontrako borrokari buruzkoak.





**Bigarren zati** batean gas naturalean jarriko dugu arreta Espainiako antolamendu juridikoko baliabide natural den heinean eta baliabide horren ustiapena xedatzen duen legeria, plangintza energetikoa eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa azalduko ditugu.

Azkenik, **hirugarren zatian**, Euskadiko ez ohiko gasaren esplorazio eta ustiaketa proiektuak aipatuko ditugu, plangintza energetikoa Euskal Autonomia Erkidegoan. Halaber, ingurumenean duen eragina aztertuko dugu, bai haren garapena xedatu duten plan eta programen kasuan, bai izapidetzen ari diren zundaketa putzuen esplorazioan. Bestalde, erabaki publiko horiek hartzean informazioa eskuratzeko eta parte hartzeko mekanismoak baloratuko ditugu.

---

#### LEHEN ZATIA. TESTUINGURU HISTORIKOA ETA UNEKO EGOERA

1. Ez ohiko gasa apurketa hidraulikoaren bidez erauzteko sistema. Testuinguru historikoa eta uneko egoera
2. Apurketa hidraulikoak ingurumenean eta herritarren osasunean duen inpaktuaren ebaluazioa.
  - A) Lurraren eta lur-azpiaren gaineko inpaktua eta arriskua.
  - B) Uraren gaineko inpaktua.
  - C) Atmosferaren gaineko inpaktua.
  - D) Bioaniztasunaren eta inguru naturalen gaineko inpaktua.
  - E) Substantzia kimikoak erabiltzeagatik sortutako giza osasunerako eta ingurumenerako arriskuak
3. Ez ohiko gasa erauztearen inpaktua politika energetikoentzat eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokari buruzko politikentzat.

#### BIGARREN ZATIA: BALIABIDE NATURALAK ERAUZTEA ESPAINIAKO ANTOLAMENDU JURIDIKOAN

4. Gas naturala baliabide natural gisa eta haren zentzuzko erabilera Espainiako antolamendu juridikoan.
5. Plangintza energetikoa Espainiako antolamendu juridikoan.
6. Baliabide naturalak erauztea eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

#### HIRUGARREN ZATIA: EZ OHIKO GASEN USTIAKETA ETA ESPLORAZIO PROIEKTUA EUSKADIN.

7. Ez ohiko gasen esplorazio eta ustiaketa proiektuak Euskadin.
8. Plangintza energetikoa Euskadin eta haren ingurumen-ebaluazioa.
9. Plan eta programen ingurumen-ebaluaziorako eta Euskadi estrategia energetikoa 2020 delakorako administrazio prozedura.
10. Herritarren parte-hartzea eta ez ohiko gas erauzketa.




\* \* \* \*

**LEHEN ZATIA:** Ez ohiko gas erauzketa apurketa hidraulikoaren bidez.

## 1. Ez ohiko gasa apurketa hidraulikoaren bidez erauzteko sistema. Testuinguru historikoa eta uneko egoera

Apurketa hidraulikoa edo frackinga lur-azpitik hidrokarburo likidoak edo gaseosoak erauzteko sistema da. Gas naturala arroka porotsu eta iragazkorretan kokatutako metaketetik atera izan ohi da, bertan loturiko hidrokarburo kopuru handia pilatzen baitzen eta erauzketa putzu baten zulaketa horizontalaren bidez berreskuratzea errazagoa zen.

Ohiko sistema horretan ez bezala, arbel edo eskistozko arrokan kokaturiko hidrokarburoen kasuan, gas- edo petrolio-hobia ez ohikoa deitzen da ez baitago eremu jakin batean kokatuta. Hidrokarburo horiek gas kopuru txikiko, protasun baxuko eta iragazkortasun oso baxuko milaka kilometro karratuko arroka bolumen handietan banatuta daude.



Gas naturala, gehien bat metanoa, arroka inguru guztian zehar poro txikietan kapsuletan sartuta dago. Gasa erauzi ahal izateko, zulaketa bertikal sakona (normalean 5000 metro inguru) egin behar da gasa biltzen duen arroka amaren kokapeneraino. Behin lokalizatuta, teknika horrek zulaketa horizontala eskatzen du arroka eremuan zehar. Sistema horren arabera erauzketarako gas partikula txikiak estimulatu behar dira arroka apurtuz. Horretarako mikroleherketak egiten dira eta ondoren ura eta produktu kimikoak injektatu hoditik bertatik lortu ahal izateko.

Erauzketa sistema horren jatorria eta haren garapen teknologikoa **Estatu Batuetan** sortu zen 70. hamarkadan, ohiko gas-hobiak agortu ondoren, gas-enpresak gero eta iragazgaitzagoak ziren formazioetan zulatzen hasi behar izan zirenean. Ustiaketa teknika horien aldaketa aurrerapen teknologikoek bultzatu zuten,



zulaketa horizontala handitzeko eta apurketa hidraulikoaren erabilerarekin bateratzeko aukera eskaini zutenak ez ohiko gas hori berreskuratzeko. Sistema horren garapen nagusia Barnett Shale ustategian kokatu behar dugu, Texaseko estatuan, 2005az geroztik 20.000 putzu inguru zulatu baitira.

Teknika berri horrek sustatu duen aurrerapen sozial eta ekonomikoa ingurumeneko arazoekin ilundu egin da, bereziki injekzio fluidoek edo berreskuratutako gasak kutsatutako akuiferoen ondorioz. Egoera horiek zulaketa eremu horiek ere jaso dituzten Estatu Batuetako beste inguru jendetsuagoetan salatu izan dira. Ingurumeneko Estatu Batuetako Agentziak (EPA) erauzketa sistema hori erabiltzeagatik sortutako kutsaduragatiko salaketen hainbat kasu aztertu ditu<sup>2</sup>. New York estatuaren kasuan, Marcellus Shalen kokatutako erreserba ustiatzeko proposamenak gizarte erantzun handia sortu du, eta horren ondorioz putzuen baimenak atzeratu dira ingurumeneko agintaritzak apurketa hidraulikoak dakartzan arriskuen inguruan eztabaidatu eta ur erreserben gainean eraginak saihesteko berriarazko araudia gaineratzeko aukera baloratzen duten bitartean. Ingurumen arriskuen ondorioz, EPA ikerketa bat bideratzen ari da sistema horrek kontsumo-urak edo lur-azpiko urak kutsatzeko eragin ditzakeen ustezko inpaktuak aztertzeko<sup>3</sup>.

Ez ohiko gas hori erauztekko AEBn teknologia hori garatu izanak eta hidrokarburoen eskaeraren eta prezioen igoerak planetaren beste zonaldeetan ikertzeko aukera eskaini dute. Egun arte arbelezko arroka hobi garrantzitsuak aurkitu dira Argentina, Kanada, Europako Ekialdea (Polonia, Errumania, Bulgaria), Mexiko eta Txina bezalako inguruetan. Espainian ez ohiko gas baliabide horiek mugatuagoak dira. Ebro bailararen hainbat zonaldeetako, Kantauri itsasoko ertzeko eta Andaluziako inguruetao lur-azpian arbelezko hainbat gas bloke aurkitu dira. Herrialde horietako gehienetan ikerketa eta esplorazio proposamenek baliabide natural hori eskuratzeko dakartzan abantailei eta erauzketa sistema hori erabiltzeko sor ditzakeen ingurumen, ekonomia eta gizarte eraginei buruzko gizarte eztabaida sakon batekin bat egin dute.

Ez ohiko gasaren aukerak eta arriskuak nazioarteko testuinguruan indarrean dagoen kontua da. **Energiaren Nazioarteko Erakundeak (ENE)** 2012ko maiatzean hidrokarburoak erauztekko sistema honen inguruko txosten berezia aurkeztu du<sup>4</sup>. Bertan, gasaren urrezko garaira heltzeko aukera proposatzen du, betiere, energia

---

<sup>2</sup> EPAk Dimocken (Pennsylvania) <http://www.epa.gov/aboutepa/states/pa.html#dimock> eta Pavillonon, Wyomingin <http://www.epa.gov/region8/superfund/wy/pavillion/> salatutako bi kasu ditu hizpide.

<sup>3</sup> <http://www.epa.gov/hfstudy/index.html>

<sup>4</sup> "The Golden Rules for a Golden Age of Gas" Word energy Outlook. Sepecil Report on Unconventional Gas. International Energy Agency. <http://www.worldenergyoutlook.org/goldenrules/>



fosil hori modu errentagarrian eta ingurumen eragin onargarri batekin garatzen bada. Txostenak eskisto-gasa erauzteko apurketa hidraulikoaren teknologian egondako aurrerapenek dakartzaten onurak zehazten ditu. Ez ohiko gasaren ekoizpena handitzeak gas-industria, hornigai seguruagoa eta aniztasun energetiko handiagoa garatzeko aukera dakar. Era berean, txostenak energia-iturri horren inguruko oztopoak azaltzen ditu, bereziki gizarte eta ingurumen kezka. Bestalde, ENEk onartzen du erauzketa sistema honek ohiko gasak baino aztarna ekologiko handiagoa dakarrela, luraren okupazio handiagoaren, baliabide hidrikoen kontsumoaren eta ura eta atmosfera kutsatzeko arriskuaren ondorioz. Ingurumeneko eragin handiago horrek gizarte erantzun garrantzitsua eragin du. Horretarako, hainbat arau eta erregulazio proposatzen ditu inpaktu horiei aurre egiteko. Txostenaren arabera, urrezko arau horiek aplikatzean gizarte agenteek ingurumen erronka horien gainean duten erantzuna hobea izatea lortuko da, ez ohiko gasa erauzteko proiektu horiek jarduteko gizartearen lizentzia izan dezaten.

**Europar Batasunaren** barnean, gizarte eta ingurumeneko kezka hori dela-eta, hainbat herrialdek ez ohiko gasa erauztean apurketa hidraulikoaren erabilera atzeratzea proposatu dute. Kasurik paradigmaticoena Frantzia da, une honetan Europako hidrokarburoen inportatzaile handienetako bat, haren lurraldean ez ohiko gas erreserba garrantzitsuak aurkitu baitira. Frantziako Batzorde Nazionalak, 835/2011 Legearen<sup>5</sup>bidez, lurralde guztian apurketa hidraulikoaren bidez hidrokarburo likido eta gaseosoen hobiak esploratzea eta ustiatzea debekatu zuen. Arau horren debekuaren oinarria ardura printzipioaren aplikazioa eta teknika horrek giza osasunean eta ingurumenean dakarren arriskuak dira.

Luzapen hori Errumania, Txekia eta Herbehereak bezalako herrialdeetara edo Westfaliako iparraldeko Renania landerrera ere zabaldu da. Polonia edo Erresuma Batua bezalako Europar Batasuneko beste estatu batzuek, berriz, aukera horrekin jarraitu dute ohiko hidrokarburoak erauzteko xedatutako araudia aplikatuz. Espainiako estatua bigarren talde horretan dago, Kantauri itsasoko ertzeko hainbat probintzian, Araban kasu, ikerketa eta esplorazio prozesua hasi baita, ez ohiko gas horren ustiatzarekin hasi aurretik. Duela gutxi Kantabriako Gobernuak autonomia erkidego horretako lurraldea sistema honen bidez gasa erauzteko prozesua atzeratzeko erabakia proposatu du<sup>6</sup>

---

<sup>5</sup> [http://www.assemblee-nationale.fr/13/dossiers/interdiction\\_exploration\\_exploitation\\_hydrocarbures\\_non\\_conventionnels.asp](http://www.assemblee-nationale.fr/13/dossiers/interdiction_exploration_exploitation_hydrocarbures_non_conventionnels.asp)

<sup>6</sup> Kantabriako Legearen Aurreproiektua, 2012ko urriaren 27an argitaratua. Horren bidez, Kantabriako Autonomia Erkidegoko lurraldean apurketa hidraulikoaren teknika debekatzen da ez ohiko gasa ikertzeko eta erauzteko teknika gisa.



Europar Batasunak oraindik ez du inolako arauzko xedapenik onartu ez ohiko gasa erauzteko sistema hau zuzenean arautzen duenik. Zuzenbide Komunitarioak kontuan hartzen du estatu kideek erabateko subiranotasuna onartua dutela euren lurraldeetan kokatuta dauden hidrokarburo baliabideen gainean. Proiektu horiek onartzeko arauzko esparrua 1994ko maiatzaren 20eko Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluko 94/22/CE Zuzentarauan ezarritakoa da, hidrokarburoak esploratzeko, ekoizteko eta prospekzioak egiteko baimenak esleitzeko eta erabiltzeko baldintzei buruzkoa. Era berean, proiektu horiek ingurumena babesteko araudia<sup>7</sup>, lur-azpiko uren kalitatearen kontrolari buruzkoa<sup>8</sup>, hondakinen kudeaketarena<sup>9</sup>, ingurumen kalteengatiko erantzukizunari buruzkoa<sup>10</sup> eta substantzia eta prestakin kimikoen kontrola arautzen duena<sup>11</sup> kontuan izan behar dituzte.

Estatu kide bakoitzean kontu hau jorratzerakoan dauden erregimen ugarien eta aplikatu beharreko erkidegoko araudi oparoaren ondorioz, erkidegoko hainbat erakundek esku hartu izan dute hirugarren adituek garatutako txostenak argitaratuz.

Bestalde, **Europako Batzordeak**, 2012ko urtarrilaren 27an, Europako ez ohiko gasari buruzko txostena argitaratu zuen<sup>12</sup>. Txosten horren helburua erkidegoko zuzenbidearen aplikazioa aztertzea izan da, bereziki ingurumeneko zuzenbidea, lau estatu kidetan -Polonia, Frantzia, Alemania eta Suedia- eskisto-gasa ikertu, esploratu eta erauzteko proiektuak baimentzeko prozeduretan. Gogoetetan azaltzen denez, estatu horietan indarrean dagoen legeriak, erkidegoko hainbat

---

<sup>7</sup> Ingurumen-inpaktuaren alde zuzeneko ebaluazioari buruzko araudia legeriak xedatutako kasuetan (85/337/CE Zuzentaraua eta ondorengo aldaketak, 97/11/CE Zuzentaraua eta 2003/35/CE Zuzentaraua eta ezartzeko esparruak finkatutako planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoarekin eta 2001/42/CE Zuzentaraua). Baita Kontseiluaren 92/43/CEE Zuzentaraua ere, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta fauna eta flora basatiak zaintzeari buruzkoa.

<sup>8</sup> 2006ko abenduaren 12ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2006/118/CE Zuzentaraua, lur azpiko urak kutsaduraren eta hondatzearen aurrean babesteari buruzkoa.

<sup>9</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/21/CE Zuzentaraua, 2006ko martxoaren 15ekoa, industria erauzleen hondakinen kudeaketari buruzkoa.

<sup>10</sup> Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2004/35/CE Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 21ekoa, ingurumen erantzukizunari buruzkoa ingurumen kalteak saihestu eta konpontzeari dagokionez.

<sup>11</sup> Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 1907/2006 zk.ko Araudia (CE), 2006ko abenduaren 18koa, substantzia eta prestakin kimikoak erregistratu, ebaluatu, baimendu eta murrizteari buruzkoa (REACH)

<sup>12</sup> Philippe & Partners-ek egindako txostena. 2011ko azaroaren 08ko amaierako txostena [http://ec.europa.eu/energy/studies/doc/2012\\_unconventional\\_gas\\_in\\_europe.pdf](http://ec.europa.eu/energy/studies/doc/2012_unconventional_gas_in_europe.pdf)



zuzentzaileen transposizioaren ondorioz, bereziki ingurumena babesteko alorrean, eskisto-gasaren jarduerekin loturiko ia alderdi guztiak betetzen ditu. Proiektu horien ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari dagokionez, erkidegoko araudiak zerrenda bat eta muga batzuk ezartzen ditu, apurketa hidraulikoa berariaz gaineratu gabe, hala eta guztiz ere, EBko estatuei euren barne zuzenbidean arautzeko aukera eskaintzen die. Bestalde, ingurumen alorreko legerian herritarrek duten parte hartzea proiektu horien baimenerako xedatutako prozedurara mugatzen dela azaltzen du.

**Europako Parlamentuak**, 2011ko ekainean, eskisto-gasa eta -petrolioaren erazteak ingurumenean eta giza osasunean dituen ondorioei buruzko ikerketa bat aurkeztu du<sup>13</sup>. Txostenak azaltzen duenez, teknologia horrek ingurumeneko ondorio saihestezinak ditu, hala nola, lurzorua okupazio handia erazketa putzuetarako eta garraio saretarako eta atmosferan eta uretan kalteak sortzeko arrisku handia. Inpaktu eta arrisku horiek metagarriak dira putzu dentsitate altua dela-eta. Txostenak ondorioztatzen duenez, erazketa jardueretan aplikagarria den indarreko mehatzeen legeriak ez ditu kontutan hartzen apurketa hidraulikoaren alderdi espezifikoak. Kontuan hartu beharreko erkidegoko gainontzeko zuzentzailek ere hainbat hutsune dituzte erazketa sistema horren inguruan. Horregatik, eskisto-gasa erazteari buruzko berezko arau-esparrua erregulatzeko beharra gomendatzen du. Horrela bada, apurketa hidraulikoko jardueren proiektuen inguruan egin beharreko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioetarako eremu berezia zehazteko beharra aipatzen du. Era berean, tokiko agintariek proiektu horiek baimentzeko, aplikatze eremutik zonalde sentikorak baztertzeko eta erabakiak hartzean herritarren parte-hartzea indartzeko duten ahalmena indartzeko beharra azaltzen du.

Une honetan Europako Parlamentua bi ebazpen proposamen izapidetzen ari da eskisto-gasa eta petrolioaren eraztearen ingurumeneko ondorioen inguruan 2011/2308 (INI) eta eskisto-gasaren eta petrolioaren alderdi industrial, energetiko eta bestelako inguruan 2011/2309 (INI). Ebazpen proposamenen artean Europako arazko esparruaren oinarriaren gainean ebaluazio sakona bideratu beharko litzatekeela eta hobekuntza neurriak hartu beharko liratekeela uste dute. Era berean, kontuan hartu beharreko ingurumeneko alderdiak eta herritarren informazioa eta parte-hartzea bermatzeko neurriak ere biltzen dituzte.

---

<sup>13</sup> "Eskisto-gasa eta -petrolioaren erazteak ingurumenean eta giza osasunean dituen ondorioak". Europako Parlamentuak 2011ko ekainean argitaratua. <http://www.europarl.europa.eu/committees/es/studiesdownload.html?languageDocument=ES&file=66719>



## 2. Apurketa hidraulikoak ingurumenean eta herritarren osasunean duen inpaktuaren ebaluazioa.

Lur-azpitik baliabide naturalak erauzteak ingurumenean eta herritarren osasunean hainbat inpaktu sortzen ditu. Uneko ingurumeneko kontrol-sistemak aldez aurreko ebaluazioa xedatzen du ustiatu beharreko hobi bakoitzarentzat. Proiektu horien baimena sustatzen duten herri-erabakiak hartu aurretik, ingurumenean eragin nabarmena dutenean, eskumena duen administrazioak ingurumen-inpaktua eta jarduerak inguruan sor ditzakeen arriskuak ebaluatu behar ditu.

Egoera berean dago apurketa hidrauliko bidez ustiatu behar diren gas erreserben ustiaketa. Kontuan hartu behar da ez ohiko gasa erauzteko plataforma eta putzuen kanpoko inpaktua ez dela hidrokarburoen gainontzeko ustiategi erauzleetatik ezberdintzen.

Printzipioz, lurzorua eta akuiferoen zulaketa bertikala komuna da putzu guztietan. Hala eta guztiz ere, zulaketa horizontalak arroka azalera handien apurketa hidraulikoarekin batera ingurumenerako eta giza osasunerako inpaktu eta arrisku osagarriak dakartza, azterketa eta tratamendu berezia eskatzen dutenak.

Ingurumeneko beste arrazoiaren artean, sistema hau zalantzan jarri izan da ura eta bestelako produktu toxikoak injektatzeko erabiltzen direlako eta horrek akuiferoen eta zulaketa sistemek zeharkatzen dituzten ur-masen kutsadura arriskua dakar. Fluido hori lur-azpian injektatzen da eta kopuru handi bat sakoneko kapa geologikoetan konfinatuta geratzen da gas metanoarekin eta beste produktuekin nahastuz. Beste elementu eztabaidagarrietako bat sistema horrek bideragarritasun ekonomikoa lortu ahal izateko behar dituen erauzketa putzu kopuru handia da, gas fluxu gutxiago berreskuratzen baita.

Ingurumenerako kalte eta arriskuen identifikazioa arestian aipatutako hainbat agiritan adierazi izan da. Europako Batzordeak 2012ko irailean apurketa hidrauliko bidezko hidrokarburoen erauzketa eragiketek ingurumenerako eta giza osasunerako sortutako arriskuak identifikatzera bideratutako txostena argitaratu du<sup>14</sup>. Txostenak Europan teknika hori ezartzean erauzketa putzu kopuru ugari egoteak sor ditzakeen ondorio sinergiko eta metagarriak azaltzen ditu. Inpaktu eta arriskuen artean, lurren gehiegizko okupazioa, atmosferarako igorpenak, kutsadura akustikoa, lurraren eta lur-azpiko uren kutsadura, baliabide hidrikoen erabilera intentsiboa, bioaniztasunerako eraginak edo sismikotasun arriskua aipatzen dira.

---


<sup>14</sup>AEAk Europako Batzorderako burututako txostena "Support to the identification of potential risks for the environment and human health arising from hydrocarbons operations involving hydraulic fracturing in Europe"<http://ec.europa.eu/environment/integration/energy/pdf/fracking%20study.pdf>

Teknika honen balorazioa egite aldera, apurketa hidraulikoaren teknologia hori erabiltzeak ingurumenerako eta herritarren osasunerako aipatutako inpaktu nabarmenenak azalduko ditugu.

#### A) Lurraren eta lur-azpiaren gaineko inpaktua eta arriskua.

-Apurketa hidraulikoak eskatzen dituen erauzketa plataformen lurraren gehiegizko okupazioa. Eremu horietan zulaketa putzua kokatzen da eta kudeaketarako berreskuratutako zulaketa fluidoak pilatzen dira. Era berean, lortutako gasa biltzeko eta kontsumorako banatzeko lekua ere behar da, baita garraiorako ibilgailu-sarbidetarako sareak eskatzen dituen konexioak ere. Plataforma bakoitzak hartzen duen azalera, Amerikako hobietan lortutako datuen arabera, 4 eta 10 mila metro karratu ingurukoa izan daiteke. Hala eta guztiz ere, sistema honek dakarren arazo nagusia hobi guztiko eskalako ustiategi batek eskatzen dituen zulaketa kopuru altua da. Putzuen dentsitatea hobi motaren eta ustiategian bideratutako kudeaketaren arabera da. Amerikaren kasuan, Barnett Shalen batez besteko dentsitatea km<sup>2</sup> bakoitzeko 1,5 putzuko da.

Erauzketa teknika honek sortzen duen lurrarekiko inpaktu nagusia landa lurraren gehiegizko okupazioa da, lurraldean zehar zulaketa plataformak pilatu eta sakabanatu behar direlako. Inpaktu hori lurzoru urbanizaezinean kokatzen da. Lurzoru mota hori, haren berezko izaerarengatik, zentzuz eta bere landa izaeraren arabera erabiltzeko bideratuta dago eta ez da batere aproposa urbanizatzearen ondorioz eraldatzeko. Erauzketa plataformen sareak duen lurzoruaren okupazio dentsitate handi horrek inpaktu handia dakar landa inguruaren berezko beste erabileren (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza...) gaineko eragina ebaluatzeko lurraldearen antolamenduan kontuan hartu beharreko paisaian.



Fracking zelaia AEBn



Lurzoruan injektatutako fluidoaren konfinamendua. Arbela dagoen kapa geologikoetan injektatutako fluxu kopuru handi bat, % 80 eta % 50 bitartean, ez da berreskuratzen. Beraz, lur-azpiko egitura geologiko horietan konfinatuta geratzen da, haren metatze baldintzak eta fluido hori lur-azpian dauden substantziekin batera (metanoa, hondakin erradioaktiboak...) lurrazalerantz migratzekotan -nekez gerta daitekeena- ingurumenean eta giza osasunean eragin ditzakeen arriskuak argitu gabe. Beste substantzien metatze geologikoak, CO2aren kasuan gertatzen den bezala, berriazko arriskuen ebaluazioa eta jarraipen plana eskatzen du.

- Sismikotasun arriskua. Apurketa hidraulikoak arbelaren inguruan leherketa txikiak erabiltzea eskatzen du, presiopeko ura injektatzearekin batera, hainbat kasutan, ia hautemanezinak izango liratekeen Richteren eskalako 1tik 3rako seismo txikiekin lotu izan direnak. Blackpoolen kasuan, Erresuma Batuan, fluidoaren injekzioaren eta 2,3ko magnitudeko lurrikara txikien arteko lotura azaldu da. Ez dirudi etorkizunean lurrikara horiek berriro gertatuko direnik<sup>15</sup>).

## B) Uraren gaineko inpaktua.

- Uraren gehiegizko kontsumoa fluidoa injektatzeko. Apurketa hidraulikoaren prozesuak uraren erabilera intentsiboa eskatzen du presio altuko injekzioan zehar gasaren estimulazioa eragiteko. Apurketa prozesu horiek hainbat aldiz gerta daitezke abian dagoen tartean zehar. Putzu bakoitzaren uraren kontsumoa 15 mila metro kubiko ingurukoa dela kalkulatu da Barnett Shalaren erreserban<sup>16</sup>.

- Uraren kutsadura. Zulaketen lur-azpian dauden akuiferoak hainbat arrazoiengatik kutsa daitezke. Apurketatik datorren ura hainbat gehigarri eta substantziarekin diluituta dago eta substantzia horietako batzuk toxikoak dira. Injekzio fluxu hori, neurri batean, hodiak berak berreskuratzen du lortutako gasarekin batera eta, hainbat kasutan, modu naturalean formazio geologikoetan dauden material erradiaktiboekin.

Apurketaren fluidoek eta metanoak akuiferoak kutsatzeko arriskua dago putzuak gaizki zementatu izanagatik sortutako ihesak direla-eta edo, arbelaren sakontasunaren arabera, egitura geologikoen bidez gasa komunikatzen duen pitzadurak edo arrakalak direla-eta. Amerikako eskisto-gas erreserbatan aurkeztutako erreklamazio gehienak lur-azpiko urak metanoarekin kutsatzeagatik

---

<sup>15</sup> <http://og.decc.gov.uk/assets/og/ep/onshore/5075-preese-hall-shale-gas-fracturing-review.pdf>

<sup>16</sup> Euskal herritar baten batez besteko urteko kontsumoa, 2009ko EINen datuen arabera, 126 litrokoa da, 46 m3 inguru.





egin dira, horrek leherketa arriskua baitakar. Arrisku hori areagotzen da zulatutako putzuen kopuruarengatik.

– Berreskuratutako kutsatutako uraren kudeaketa. Era berean, berreskuratutako fluidoak, injektatutakoaren % 20 eta % 50 bitartean, jaso eta behar bezala metatu behar da ondoren tratatu eta arazteko. Errefluxu horren metaketak ere lur-azpiko uretan isurtzeko arriskua dakar.

### **C) Atmosferaren gaineko inpaktua.**

– Plataformetatik atmosferara isurtzen diren kutsatzaileak berreskuratutako fluidoak gordetzeko baldintzetan, zulaketa ekipoetan edo garraiorako ibilgailuetan sor daitezke. Bestalde, lortzen den gas metanoa atmosferara lausoki isurtzeko arriskua dago putzua zulatzen den tartean zehar. Kasu honetan, putzuak lehertzeko arriskua ere egon daiteke kontrolik gabeko gas naturalaren isurketa baten ondorioz. Arrisku hori aldaketa klimatikoarekin lotuta dago, gas metanoa berotegi efektuan eragin gehien duen gas naturaletako bat baita.

– Kutsadura akustikoa. Ustiaketa faseetan hainbat zarata isurketa foku daude. Zarata indusketatik, ibilgailuen garraiotik, apurketa prozesutik edo gasa zuzietan erretzetik sor daitezke. Zaratak kalte larria eragin dezake giza osasunean edo putzuen inguruan bizi den tokiko faunan.

### **D) Bioaniztasunaren eta inguru naturalen gaineko inpaktua.**

Arestian deskribatutako airearen, uraren eta lurzoruen gaineko inpaktuek eragin-eremuan dauden espezie eta habitat naturaletan eragina izan dezakete. Bereziki, espezie naturalentzat, euren habitatentzat eta babes erregimenen bat duten eremu naturalentzat sor ditzaketen eragin sinergiko eta metagarriak aztertu beharko lirateke.

### **E) Substantzia kimikoak erabiltzeagatik sortutako giza osasunerako eta ingurumenerako arriskuak**

Kezka gehien sortzen duen kontuetako bat apurketa fluidoak substantzia kimiko ezberdinekin erabiltzea da. Egoera gehienetan ura eta harea % 98an eta gehigarriak % 25ean erabiltzen dira. Txostenetan azalduenez, substantzia horien zati bat toxikoa eta giza osasunerako kaltegarria izan daitezke eta, batzuetan, minbizi-sortzailea. Apurketa hidraulikoaren kasuan, apurketa fluidoaren osaera zulaketa putzu bakoitzean aldatzen den kontua da. Hainbat kasutan baliteke



fluidoak substantzia kimikorik ez izatea. Horrela bada, Austriaren kasuan, ura, harea eta arto-almidoia bakarrik duten apurketa fluidoan erabilera proposatu da<sup>17</sup>.

Aipatu beharra dago giza osasunean eta ingurumenean eragin kaltegarriak izan ditzaketen substantzien erabilera substantzia eta prestakin kimikoen erregistro, ebaluazio, baimen eta mugaketari buruzko 1907/2006 EB Araudiak erregulatzen duela. Osasunerako arrisku handia duten substantziak erabiltzeko eta merkaturatzeko baimendu behar dira eta, arriskua onartezina den kasuetan, erabilera debekatuko da.

Era berean, erkidegoko araudiak muga garrantzitsuak ezarri ditu substantzia arriskutsuetarako disolbatzaile organikoak erabiltzen dituzten industria-jardueren moduko esparruetan. Prozesu horietan, kartzinogeno, mutogeno eto toxiko gisa sailkatu diren substantziak edo nahasketak, ahal den heinean, horren arriskutsuak ez diren substantziekin ordezkatu beharko dira<sup>18</sup>.

Apurketa hidraulikoaren kasu honetan, arrisku nagusia halako substantzien zati handi bat inguru naturalera zabaltzen direla, izan ere, lur-azpian konfinatu arren, ezin dira prozesu horretatik berreskuratu. Arrisku horren ebaluazioan substantzia horiek izan ditzaketen eragin metagarriak kontuan hartu behar dira, teknika horrek eskatzen dituen putzu kopuruarekin biderkatuta.

Azken finean, apurketa hidraulikoaren eraginak zehazteko burututako txostenek azaltzen dutenez, hidrokarburoak erauzteko sistema horrek dakartzan arriskuak ohiko erauzketarenak baino handiagoak dira, bereziki eskatzen dituen zulaketa putzu kopuru handia dela-eta<sup>19</sup>.

Inpaktuen ebaluazioari eta arriskuen kudeaketari esker, apurketa hidraulikoak sor dezakeen ingurumeneko eta giza osasunerako kalteak murrizteko edo ezabatzekeo teknikak ugartzen ari dira.

---

<sup>17</sup> Europako Parlamentuko Industria, ikerketa eta energia Batzordearen txostena, eskisko-gasa eta -petrolioaren alderdi industrial, energetiko eta bestelakoei buruzkoa (2011/2309(INI))

<sup>18</sup> Industria-isurketei buruzko 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/UE Zuzentaraua (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratua).

<sup>19</sup> AEAK Europako Batzorderako burututako txostena "Support to the identification of potential risks for the environment and human health arising from hydrocarbons operations involving hydraulic fracturing in Europe"<http://ec.europa.eu/environment/integration/energy/pdf/fracking%20study.pdf>



Beste tekniken artean, putzuen akuiferoekiko iragazgaiztasuna, injekzio fluidoan erabilera produktu kimikorik erabili gabe eta hondakinen kudeaketa egokia bermatzea proposatu dute. Era berean, hobiaren inguruan uren eta atmosferaren kalitatearen gaineko kontrola eta injektatutako fluidoan, gas metanoaren eta hobian egon daitezkeen beste substantzien gaineko zaintza-plana proposatu dira.

Proposamen horiek, egun arte, ez dira inolako arauzko tresna lotesletan bildu. Hori dela-eta, egun arte egindako txostenek apurketa hidraulikorako berezko erregimena finkatzeko beharra azpimarratzen dute, sistema hori nabarmenki arautuko duena ingurumenean edo giza osasunean eraginak saihesteko eta gizarte adostasun handiagoa eskaintzeko<sup>20</sup>.

Europako berariazko araudirik ez dagoenez, Europako hainbat estatuk erabilera atzeratzea erabaki dute erauzketa sistema honen garapen tekniko, juridiko eta soziala bideratu arte.

Testuinguru horretan gomendagarria da, apurketa hidraulikoa ezarri aurretik, eskumena duten botere publikoek teknologia horren ikuspegi globala izatea haren ustezko arriskuen ebaluazio estrategikoa bideratzeko. Ebaluazio horrek zero aukerak, hau da, abian jartzeari uko egitearen edo atzeratzearen aukerak, ingurumenerako dituen eraginak gaineratu behar ditu. Era berean, gogoeta horrek erabaki horren gaineko euren ikuspegia helaraz dezaketen gizarte agente guztien parte-hartze aktiboa eskatzen du aukera guztiak irekita dauden fase batean.

Gogoeta hori aurkitutako gas naturaleko hobien ustiategi bakoitzak ikerketa fasean zein esplorazio edo ustiaketa faseetan ingurumenerako izan ditzakeen ondorioen banakako balorazioaren aurretik egin behar da.

### **3. Ez ohiko gasa erauztearen inpaktua politika energetikoentzat eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokari buruzko politikentzat.**

Ez ohiko gasaren inguruan intereseko beste ikuspegi bat dago ez ohiko gas baliabideak erauzteari buruzko erabaki estrategiko bat baloratzekoan, gizarte mugimenduek eta ekologistek azaldu duten, hain zuzen, politika energetikoan duen inpaktua hizpide duena.

Europar geografikoki ondo sakabanatutako hidrokarbuo erresebak egoteak garrantzi estrategikoa dauka une honetan goraka doan gas naturalaren eskaerari segurtasun estrategikoarekin aurre egiteko. Energiaren Nazioarte Erakundeak

---

<sup>20</sup> Energiaren Nazioarteko Erakundeak urrezko hainbat arau aipatzen ditu ingurumen babes egokia lortzeko eta arlo honetan jardun ahal izateko "gizarte lizentzia" eskuratzeko. "Golden Rules for a Golden Age of Gas"



aiapatutako txostenean azaltzen duenez, ez ohiko gas erreserbek, betiere erauzketarako gizarte eta ingurumen baldintza batzuk errespetatuz gero, gas naturalaren urrezko garai gisa definitutako epea sor dezakete.

Hala eta guztiz ere, Europan ez ohiko gasa erauzteak dakartzan aukera energetikoak erauzketa sistema horrek uneko testuinguruan sor ditzakeen ekonomia, gizarte eta ingurumen mailako eraginekin aztertu behar dira, izan ere, energia fosiletan oinarritutako eredu energetiko batetik karbono maila baxuko iturri berriztagarrietan oinarritutako eredu energetikora igarotzen ari gara.

Baliabide naturalak agortzea eta nazioarteko konpromisoak betetze aldera berotegi efektuko gas isurketak kontrolatzea inflexio puntu bat eragin dute ohiko eredu honetan eta gizarteak aurreztean, eraginkortasun energetikoan eta energia-iturri berriztagarrien erabileran oinarritutako eredu baterantz aldatu behar izan du.

Gas naturala energia-iturri fosila da eta, beraz, ez da berriztagarria. Horren kontsumoak, beste energia fosilena -petrolio edo ikatza, esate baterako- baino txikiagoa izan arren, ingurumenean eragin handia dauka. Hala eta guztiz ere, Europarako politika energetikoak, hornidura bermatzen duen energia berriztagarrien garapen egokirik ez dagoenez, beharrezkotzat jotzen du gas naturala etorkizunean energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako eredura igarotzeko beharrezkoa den lehen mailako energia-iturri gisa<sup>21</sup>. Nazioarteko erakunde batzuek adierazi dute gas naturala energia-iturri fosilen -kutsagarriagoak direnak eta berotegi efektuko gasak sortzen dituztenak- eta beste energia-iturri berriztagarrien arteko iragaite energia iturria dela.

Iragaita energetiko horrek iturri berriztagarrietan eta karbonoan baxua den ekonomia batean oinarritutako energia-eredu baten aldeko apustua mantendu behar du. Europar Batasuneko politika energetikoetan konpromiso loteslea dago berotegi efektuko isurketak % 20 murrizteko, apirilaren 23ko 406/2009/CE Erabakia, eta energia berriztagarrien erabilera % 20koa izateko, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzeari buruzko apirilaren 23ko 2009/28/CE Zuzentaraua<sup>22</sup>.

Mix energetikoan lehen mailako energia-iturri gisa berriztagarriak ez diren baliabideen erabileraren ehunekoak garrantzi berezia dauka beste baliabide-iturri berriztagarrien erabileran. Horrela bada, energia-iturri berriztagarrien erabilera

---

2007ko urtarrilaren 10ean Batzordeak Europako Kontseiluari eta Europako Parlamentuari igorritako jakinarazpena, «Europarako Politika energetikoa» [\[COM \(2007\) 1 final http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2007:0001:FIN:ES:PDF](#)

<sup>22</sup> <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2007:0001:FIN:ES:PDF>



sustatzeko erabakiak beste energia-iturri fosilen erabilera murriztea eragin du, ikatza edo petrolioa kasu, eta energia nuklearra eta gas naturala mantendu dira<sup>23</sup>. Europar Batasunean finkatutako helburuak betetzean berriztagarriak ez diren energia-iturri horien beheranzko joera mantentzea espero da.

Testuinguru honetan, botere publikoek ez ohiko gasa erazteko sistema baten alde hartutako erabakiak berotegi efektuko gasen isurketa murrizteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko helburu horiek betetzea izan behar du abiapuntu gisa.

Horretarako, ez ohiko gasa eraztea xedatzen duten botere publikoen energia estrategikoek arbelezko gasa ustiatzeak duen inpaktu ekonomikoa kontuan hartu behar dute karbonorik gabeko teknologien hedatze eta garapenean eragina izan ez dezan<sup>24</sup>.

Era berean, arbelezko gasak CO2 isurketak murrizteko helburua duten politika publikoetan izan dezakeen eragina kontuan hartu beharra dago, izan ere, ez ohiko gasa erazteak ohiko gasa erazteko sistemak baino CO2 isurketa gehiago sor ditzake<sup>25</sup>.

Hori dela-eta, faktore energetikoak eta sozialak kontuan hartu behar dira ez ohiko gasa erazteko sistema aukeratzeko herri administrazioen erabaki estrategikoen inguruan sortutako eztabaidan.

\* \* \* \*

## **BIGARREN ZATIA: BALIABIDE NATURALAK ERAUZTEA ESPAINIAKO ANTOLAMENDU JURIDIKOAN**

### **4. Gas naturala baliabide natural gisa eta haren zentzuzko erabilera Espainiako antolamendu juridikoan.**

– Gas naturala, petrolioa eta gure lur-azpian dauden gainontzeko baliabide geologikoen izaera bikoitza dute. Alde batetik, gasa eta gainontzeko hidrokarburoak pertsonen bizitza-inguru gisa ingurumena osatzen duten baliabide

---

<sup>23</sup> Argitalpenaren iturriak "La energía en España 2010", Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak argitaratuta.

<sup>24</sup> Ikusi Manchesterreko Unibertsitateko Tyndall Centreren txostena "Shale gas: an updated assessment of environmental and climate change impacts" [http://www.tyndall.ac.uk/sites/default/files/coop\\_shale\\_gas\\_report\\_update\\_v3.10.pdf](http://www.tyndall.ac.uk/sites/default/files/coop_shale_gas_report_update_v3.10.pdf).

<sup>25</sup> AEAk Europako Batzordeari aurkeztutako txostenaren arabera, "Climate impact of potential shale gas production in the UE", eskisto-gasaren bidez sortutako elektrizitate unitate bakoitzaren BEG isurketak ohiko gaseko putzuek sortutako elektrizitatea baino % 4- % 8 altuagoak dira [http://ec.europa.eu/clima/policies/eccp/docs/120815\\_final\\_report\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/clima/policies/eccp/docs/120815_final_report_en.pdf)



naturalen parte dira<sup>26</sup>. Bestalde, baliabide geologiko horiek historian zehar energia lortzeko iturri gisa euren erabilerari loturiko ekonomia eta gizarte baliotzat jo dira. Baliabide fosilek energia-iturri gisa duten bigarren izaera horrek haien erauzketa eta kontsumoa eskatzen du eta horrek ikuspegi bikoizteko ingurumen-inpaktu garrantzitsua dakar. Horiek agortzeari dagokionez, ez baita energia-iturri berriztagarria, eta erauzketa, garraio, bilketa eta, dagokionean, eraldaketa jarduerak dakarten ingurumen inpaktu garrantzitsuari dagokionez.

Espainiako antolamendu juridikoak ingurumenaren tutoretza garapen ekonomikoarekin bateratzen saiatzen aurre egin dio kontraesan horri. Garapen "iraunkor" hori, egun arte, baliabide naturalen ustiaketaekin lotuta egon da. **Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua**, gizarte eta ekonomia politikaren printzipio zuzendarien barnean, pertsonaren garapenerako egokia den ingurumenaz gozatzeko eskubidea barne hartzen du eta hura mantentzeko beharra ezartzen du. Zehazki, botere publikoei baliabide natural guztien zentzuzko erabilera zaintzeko emandako agindua gaineratzen du. Bestalde, Espainiako Konstituzioaren 132. artikulua, ekonomia eta ogasunari buruzko VII. tituluaren barnean dagoenak, zentzuzko erabilera hori baliabide naturalen jabari publikoko eta interes orokorrekiko mendekotasuneko izaerarekin lotzen du.

**Konstituzio Auzitegiak** zera aipatu zuen azaroaren 4ko 64/1982 epaian: *"El artículo 45 (de la Constitución) recoge la preocupación ecológica surgida en las últimas décadas en amplios sectores de opinión que ha plasmado también en numerosos documentos internacionales. En su virtud no puede considerarse como objetivo primordial y excluyente la explotación al máximo de los recursos naturales, el aumento de la producción a toda costa, sino que se ha de armonizarla «utilización racional» de esos recursos con la protección de la naturaleza, todo ello para el mejor desarrollo de la persona y para asegurar una mejor calidad de la vida. Estas consideraciones son aplicables a las industrias extractivas como cualquier otro sector económico y supone, en consecuencia, que no es aceptable (...) que exista una prioridad absoluta del fomento de la reproducción minera frente a la protección del medio ambiente. Recuérdese también que la «calidad de la vida» que cita el artículo 45, y uno de cuyos elementos es la obtención de un medio ambiente adecuado para promoverla, está proclamada en el preámbulo de la Constitución y recogida en algún otro artículo, como el 129.1. Sin embargo, debe advertirse que la Constitución impone asimismo «el deber de atender al desarrollo de todos los sectores económicos» (artículo 130.1) (...). Ese desarrollo es igualmente necesario para lograr aquella mejora. La conclusión que se deduce del examen de los preceptos constitucionales lleva a la necesidad de compaginar en la forma que en cada caso*

---

<sup>26</sup> Ekainaren 26ko Konstituzio Auzitegiaren 102/1995 Epaia.



*decida el legislador competente la protección de ambos bienes constitucionales: el medio ambiente y el desarrollo económico”.*

Zentzu horretan, Konstituzio Auzitegiak defendatu du baliabide naturalen zentzuzko erabilera, gas naturalarena kasu, botere publikoek pertsonaren garapen hobea lortu eta bizi kalitate hobea bermatze aldera ingurumena babesteko duten beharretik sortzen dela. Nolanahi ere, legegileak ondasun horiek “zentzuz” erabil ditzake garapen ekonomikoa hobesteko.

– **Estatuko legegileak** finkatu behar ditu baliabide natural horiek zentzuz erabiltzeko oinarrizko irizpideak gas erauzketaren jardueraren sustatzaileak bete behar dituen eskaera teknikoak eta ingurumen eskaerak arautuz. Ingurumena - Espainiako Konstituzioko 149.1.23. artikulua- eta meategi eta energia erregimena -Espainiako Konstituzioko 149.4.25. artikulua- babesteari buruzko estatuko eskumen horrek ez dio autonomiako legegileari eragozten babes hori zabaldu edo hobetzeko babes arau osagarriak ematea, ezta oinarrizko legeriarik ez dagoenean ere. Azaroaren 4ko 64/1982 epai berean Konstituzio Auzitegiak aipatzen du autonomiako araudiak ingurumena babesteari zuzendutako baldintzak eta kargak ezar ditzakeela *“betiere, karga eta baldintza horiek meategien oinarrizko antolamendua eraldatzen ez badute, zentzuzkoak badira, ezarritako helburuarekiko orekatuak badira eta konstituzioaren 2. eta 138. artikuluetan orokorrean eta 45. artikuluan berariaz ingurumena babesteko ezarritako elkartasun printzipioa urratzen ez badute.*

Aipatutako konstituzio-aginduen mesedetan, estatuko legeriak meategietako baliabideak erauzteko sistema bat arautu zuen Meategiei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legearen bidez eta, hidrokarburo likido eta gaseosoz eratutako baliabide fosilen kasuan, Hidrokarburoen Sektoreko urriaren 7ko 31/1998 Legearen bidez.

Hala eta guztiz ere, apurketa hidraulikoaren sistemaren inguruan une honetan Espainiako antolamendu juridikoan ez dago hidrokarburoen hobiak ustiatzeko teknika horri erreferentzia zuzena egiten dion inolako xedapenik<sup>27</sup>. Egun arte Espainiako lurraldean izapidetutako baimenak hidrokarburoen hobien erauzketa-jarduera gisa aurkeztu dira, ohiko eta ez ohiko hobien artean bereizi gabe.

Ebazpen honen aurreko atalean azaldu dugun moduan, Europar Batasuneko estatuetan apurketa hidraulikoari buruzko berariazko araudirik ez dagoela aipatu

---

<sup>27</sup> Diputatuen Kongresuan jasotako ekimen bakarra 2012ko uztailaren 11n aurkeztutako ez-legezko proposamena da. Horren bidez, gobernuari eskatzen zaio errege-dekretu proiektu bat aurkez dezala apurketa hidrauliko (“Fracking”) deituriko meategi ustiaketa teknika arautzeko

[http://www.congreso.es/public\\_oficiales/L10/CONG/BOCG/D/D\\_133.PDF#page=18](http://www.congreso.es/public_oficiales/L10/CONG/BOCG/D/D_133.PDF#page=18).



izan da erkidegoko erakundeek hala eskatuta burututako hainbat txostenetan. Berezko araudi horren garrantzia apurketa hidraulikoak ohiko erauzketa sistemarekiko sortzen dituen ingurumen-inpaktu ezberdinetan oinarritzen da, izan ere, legegilearen bidez baliabide natural hori erauzteko teknika horren zentzuzko erabileraren oinarriak ezartzen dituen araudi egokia eskatzen du.

Espainiako ordenamendu juridikoaren kasuan, erauzketa-teknika honen bidez baliabide naturalen zentzuzko erabileraren oinarriak arautzeko beharrak, gure ustez, apurketa hidraulikoaren erabilera ingurumenaren eta herritarren osasunaren babesarekin bateratzeko Espainiako Konstituzioaren 45. artikuluan jasotako aginduari erantzungo lioke.

Gasak konfinatzeko lur-azpiko egitura geologikoen erabileran eragina duten beste teknika espezifikoak, hala nola, karbono dioxidoaren metaketa geologikoa, berariaz xedatu izan dituzte Europako eta estatuko legegileek, lur-azpiko formazio geologikoetan euren konfinamendua arautzen duen berezko erregimen juridikoa finkatuz.

Nolanahi ere, sistema honentzat berariazko erregimen juridikorik ez egoteak ez du eragotzi putzuak zulatzeko hainbat proposamen garatzea apurketa hidraulikoa hidrokarburoen hobiak ustiatzeko izaera orokorreko prozeduraren arabera erabiliz.

– **Gasa erauzteko erregimen orokorra** Hidrokarburoei buruzko 37/1998 Legean ezarritakoa da. Hidrokarburoen lege horrek jabari publikoko ondasuntzat jotzen ditu Estatuko lurraldean dauden hidrokarburoen hobiak eta lur-azpiko metatzeak. Baliabide natural horiek lortzeko eta ondoren energia-iturri bihurtzeko, legeriak administrazioaren baimenaren mende dauden hainbat jarduera ezartzen ditu, hala nola, esplorazioa, ikerketa eta ustiaketa.

Estatuko administrazioak aipatutako jardueren gaineko oinarrizko araudia eta, besteak beste, hidrokarburoen hornidura arautu behar duten kalitate eta segurtasuneko gutxieneko baldintzak ezartzeko eskumena gordetzen du. Era berean, estatuko administrazioak hidrokarburoen alorrean plangintza ahalmenak ditu, autonomia erkidegoen parte-hartzearekin. Plangintza horrek, beste hainbat konturen artean, sektore honetako jardueretan ageri beharko diren ingurumena babesteko irizpideak gaineratu behar ditu.

Arau horrek hiru baimen kategoria biltzen ditu hidrokarburoak esploratzeko, ikertzeko edo ustiatzeko jardueraren arabera. Estatuko administrazio orokorrari dagokio esploratzeko eta ikertzeko baimenak ematea eta ustiaketa emakidak eskaintzea autonomia erkidego bat baino gehiagoko lurralde eremuan eragina duenean.







Bestalde, autonomia erkidegoei dagokie bakoitzaren eskumenen esparruan legeria garatzea, hidrokarburoen alorreko oinarritzko araudia gauzatzea eta gobernuak egindakoarekin koordinazioa planifikatzea. Era berean, autonomia erkidego bakoitzean eskumena duen organoak haren lurralde eremuan soilik eragina duten proiektuetarako baimenak eta emakidak eskainiko ditu.

Hidrokarburoei buruzko legeak esplorazio, ikerketa eta ustiaketa jardueren erregimen juridikoa ezartzen du. Lehen bi kasuetan, esplorazio eta ikerketa baimenak titularrari aukera eskaintzen dio esleitutako azalera izaera geofisikoko esplorazio lanak edo zulaketa sakonak egiteko beharra eskatzen ez duten bestelakoak egiteko, indarrean dagoen araudian eta aldez aurretik onartutako ikerketa planean ezarritako baldintzen arabera. Era berean, esplorazio programak erabili beharreko teknikak eta ingurumena babesteko neurriak bildu beharko ditu. Ikerketa baimena eskaintzen duen ebazpenean kontu tekniko eta ingurumeneko kontu horiek ez agertzea *"horren bidez eskaintzen den baimena zuzenbidearen arabera onartzea eragozten duen akats larri"* gisa hartu zuen Auzitegi Nagusiak 2004ko otsailaren 24ko epaian. Bestalde, ustiaketarako baimenak titularrari aukera ematen dio baliabide irekien aprobetxamendua gauzatzeko eta eskaintako eremuan ikerketa lanekin jarraitzeko.

Ikerketarako baimenak sei urteko tartean zehar emango dira, 15.2. artikulua arabera, hiru urteko epeko luzapenerako aukera dagoen arren baimenaren jatorrizko azalera % 50 murriztuz.

Baimenak eta emakidak eskumena duen administrazioak eskaintzen ditu, proiektuaren garapenerako beharrezkoak diren lanak, eraikuntzak eta instalazioak bideratzeko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako baimenez gain. Hirigintzako edo ingurumena kontrolatzeko kontuengatik eska daitezkeen baimen horiek modu independentean eta burutzapena gauzatu aurretik eskatu beharko ditu sustatzaileak.

Bestalde, baliabide fosil horien erauzketak harreman zuzena dauka politika energetikoa, sektore elektrikoa eta gasarena, lurraldearen antolamendua, hirigintza edo ingurumenaren babesa arautzen duen beste araudi sektorial batekin.

Energia ekoizteko edo lortzeko, elektrizitatea sortzeko edo hidrokarburoak biltzeko eta tratatzeko eskatutako azpiegituren plangintzak eta garraio-sareek garrantzi handia dute lurralde antolamenduan eta hirigintza plangintzarako tresnetan. Zentzu horretan, lurraldea edo hirigintza antolatze eskumenak, autonomia erkidegoei dagozkienak, Hidrokarburoei buruzko Legearen 5. artikuluan eta sektore elektrikoari buruzko Legearen xedatutakoaren arabera koordinatu behar dira. Hirigintza antolamendurako edo plangintzarako tresna horiek bil ditzaketen mugak,





hidrokarburoen esplorazio, ikerketa eta ustiaketa jardueretan eragina dutenean, behar bezala arrazoitu beharko dira.

## 5. Plangintza energetikoa Espainiako antolamendu juridikoan.

Lur-azpiko hobietan lortutako baliabide naturalen helburua, hidrokarburoen kasuan, energia ekoizteko eraldatzea da, bereziki energia elektrikoa ekoizteko. Gas-baliabide hori estatuko baliabide energetikoen eskaintzara gaineratzea egun arte hartutako estrategia energetikoetan eragina duen erabakia da.

Ebazpen honen laugarren atalean aipatu dugun moduan, erabaki horiek lotura zuzena dute politika energetikoetan strategiak planifikatu eta ezartzearekin. Estrategia horiek, erkidegoko eskaeren bidez<sup>28</sup>, estatuko administrazioak gaineratu ditu energia lehiakorra, iraunkorra eta ziurra lortzeko.

Gauzak horrela, sektore energetikoko legeriak sektore ezberdinak ingurumenarekiko inpakturik txikiena eraginez horniduraren segurtasuna bermatzen duten irizpide horien arabera antolatzeko beharra xedatu du. Plangintza energetikoak sektoreak biltzen dituen hainbat azpisektore gaineratzen ditu (elektrikoa, gasistikoa, berriztagarria, etab.). Era berean, plangintzak maila ezberdinak ditu, estatuan, autonomian edo, baita tokian bertan ere. Sektore horien plangintza egokia bideratzeko beharra azpisektore energetiko bakoitzak eratu duten arau ezberdinetan jasota dago. Bestalde, arau horiek ezarri dute euren xedapenen eskaera eta malgutasun maila, izaera loteslea eta izaera adierazlea duten hainbat alderdi gaineratuz.

Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak 77. artikuluan xedatzen duenez, politika energetikoa horniduraren segurtasuna, eraginkortasun ekonomikoa eta ingurumenaren iraunkortasuna bermatzera bideratuta egon behar da. Arau horrek energia aurrezteko eta energia berriztagarriek parte hartzeko hainbat helburu finkatzen ditu. Horretarako, plangintza energetiko adierazlea onartzeko beharra gaineratzen du, irizpide horiekin bat egiten duen energia sortzeko eta banatzeko eredu ezarriko duena. 2020. urterako finkatzen dituen helburuen artean, energia sortzeko baliabideei dagokienez energia berriztagarrien parte-hartzea hobetzea eta CO<sub>2</sub> isurketa gehiago duten energien parte-hartzea murriztea daude.

---

<sup>28</sup> 2010eko azaroaren 10eko Europar Batasuneko Batzordearen jakinarazpena "Energia 2020: Energia lehiakorra, iraunkorra eta ziurra lortzeko estrategia" COM (2010) 639 amaiera  
[http://europa.eu/legislation\\_summaries/energy/european\\_energy\\_policy/en0024\\_es.htm](http://europa.eu/legislation_summaries/energy/european_energy_policy/en0024_es.htm)



Plangintza energetiko lotesleari dagokionez, Ekonomia Iraunkorrari buruzko Legeak elektrizitate eta gas sektoreen legerian gaineratutako plangintza mantentzen du eta plangintza horrek sistema energetiko zurra, eraginkorra, ekonomikoki iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetuzkoa garatzen lagunduko duten irizpideak kontuan hartu beharko ditu.

Sektore Elektriikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak plangintza elektrikoa bideratzeko beharra arautzen du, hornidura elektrikoa, kalitatea eta ahalik eta kosterik baxuena bermatzeko helburuarekin. Sektore elektrikoko ohiko helburu horiek ingurumenarekiko babesa ere kontuan hartu behar dute. Zentzu horretan, plangintzak *“Energia elektrikoa hornitzeko jarduerak baldintzatu behar dituzten ingurumena babesteko irizpideak”* finkatu behar ditu *“jarduera horiek sortutako ingurumen-inpaktua gutxitzeko helburuarekin”*. Plangintza elektrikoak izaera loteslearekin jaso behar ditu elektrizitatea garraiatzeko azpiegiturak edo oinarritzko sareko gasbideak.

Arestian azaldu dugunez, hidrokarburoen sektoreak alor horretan plangintza egokia egiteko beharra ere gaineratzen du. Gasaren plangintzan lotesleak dira garraioaren oinarritzko sarearen gasbideei edo gas naturalaren eta hidrokarburoen erreserba estrategikoen oinarritzko metaketarako instalazioei buruzko xedapenak. Plangintza horrek, beste hainbat konturen artean, sektore honetako jardueretan ageri beharko diren ingurumena babesteko irizpideak gaineratzeagatik kezka jaso behar ditu.

Energiari buruzko estatu mailako plangintza hori autonomia erkidegoekin eta tokiko administrazioekin koordinatu behar da, hura prestatzeko, garatzeko eta ezartzeko kooperazio esparruak finkatuz. Bestalde, autonomia erkidegoek energia plangintzaren, sektore elektrikoaren eta gas sektorearen inguruan euren eskumeneko esparruetan plangintzarako eskumena dute.

## **6. Baliabide naturalak eraztea eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.**

Azaldu dugun moduan, plangintza energetikoaren helburuetako bat ingurumena babestea da. Bestalde, ingurumeneko legeriak berak, erkidegoko zuzenbideak eskatuta, kontrol eta prebentzio teknika bikoitza xedatu du ingurumenean eta giza osasunean inpaktua izan dezaketen proiektu eta jarduera kutsakorrenentzat. Alde batetik, jarduerak abian jarri aurretik baimena eska daiteke eta, bestetik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio egokia ere legerian xedatutako egoeretan.

– **Ingurumen-baimen integratua.** Ingurumen-baimenaren kasuan, kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko Kontseiluaren irailaren 24ko



96/61/EE Zuzentarauak<sup>29</sup> eta kutsaduraren prebentzioa eta kontrol integratua hizpide duen uztailaren 1eko 16/2002 Legeak (16/2002 Legea) kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema txertatu dute eta, 1. artikuluan jasota dagoen moduan, xedea da *“atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsadura saihestu edo, ahal den neurrian behintzat, murriztu eta kontrolatzea”*. Ingurumen-kontrol integratuaren sistema horrek egungo jarduera sailkatuen lizentzien sistema osatzen du indarrean jarri arte, EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aplikatuz.

Ingurumen-baimen integratua 50 MW baino gehiagoko potentzia termikoa duten erregai fosilen errekuntza bidezko energia ekoizteko instalazioetan, hidrokarburoak fintzeko eta eraldatzeko jardueretan edo CO<sub>2</sub>ko metaketa geologikoko instalazioetan eska daiteke, 16/2002 Legearen 1. eranskina. Ingurumen-baimena ez da eskatu behar gas naturaleko hobien erauzketa proiektuetan, edozein sistema erabilia ere.

– **Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.** Ingurumena kontrolatzeko sistema hori proiektuaren ingurumen-inpaktuaren alde aurreko ebaluazioarekin lotuta dago legerian xedatutako kasuetan. Kasu honetan, araudia ingurumenari buruzko hainbat proiektu publiko eta pribatuen eraginaren ebaluazioari buruzko 85/337/CE Zuzenturuan eta haren ondorengo aldaketetan -2011/92/UE Zuzentarauak kodifikatutako testua- oinarrituta dago.

Aldez aurreko kontrol hori Proiektuen Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko indarreko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez gaineratu da.

Lanak, instalazioak egiteko edo I. eranskinean bildutako beste edozein jarduera burutzeko proiektu publiko eta pribatuek, printzipioz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa jaso beharko dute.

II. eranskinean jasotako obrak burutzeko proiektu publiko edo pribatuen kasuan ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa jaso beharko dute ingurumen erakundeak kasu bakoitzean hala erabakitzen duenean. Natura 2000 Sareko eremuetan zuzenean edo zeharka eragin dezaketen proiektuen kasuetarako ere prozedura hori jarraitzen da. Ingurumeneko erakundeak barne hartzea eskatu ahalko du proiektuaren ezaugarriak (proiektuaren tamaina, beste proiektuekin pilatzea, baliabide naturalak erabiltzea), aurreikusitako kokalekuaren eremu geografikoen ingurumen sentikortasuna edo ingurumenerako edo giza osasunerako ustezko eragin nabarmenak aipatzen dituen III. eranskinean jasotako irizpideen arabera.

---

<sup>29</sup> Une honetan industria-isurketei buruzko 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/UE Zuzentarauak indargabetuta (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratua).



Zentzu horretan, autonomia erkidegoek euren araudian gaineratu ahalko dute II. eranskineko proiektuak edo Natura 2000 Sarearen eragina dutenak printzipioz ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa jaso dezatela.

Era berean, II. eranskinean bildutako proiektuen zerrendaren barnean, autonomiako araudiak eskatutako proiektuak berariaz gaineratzen dira, estatuko araudian bilduta egon ez arren.

Azkenik, garrantzia berezia dauka aipatzeak araudiak eta jurisprudentziak adierazi dutela ezin dela proiektu bat hainbat fasetan aurkeztu ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa saiheste aldera. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren kasuan, 2008ko uztailaren 25eko Epaian, gaia C 142/02, *Ecologistas en Acción CODA*, zera azaltzen du zuzentarauaren helburuaren inguruan *“ezin da saihestu proiektu bat zatituz eta hainbat proiekturen eragin metagarria kontuan ez hartzeak ez du ondorio praktiko gisa izan behar ebaluaziorako beharra guztiz baztertzen denik baldin eta, batera kontuan hartuta, ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketenean”*. Inpaktuaren ebaluazioaren eskaerak proiektua bere osotasunean gaineratu behar du, haren hedadura geografiko guztia eta eragin metagarri eta sinergia guztiak jasota. Horrela bada, 1/2008 EDak ohar bat gaineratzen du: *“izaera bereko eta eremu fisiko berean egindako proiektuak zatitzeak ez du ekidingo eranskin honetan ezarritako mugak ezartzea eta horien ondorioei kontuan hartutako proiektu bakoitzaren magnitudeak edo dimentsioak pilatuko zaizkie”*.

1/2008 EDaren I. eranskinaren kasuan, merkataritza helburuak dituen gas naturalaren erauzketa gaineratzen da eguneko 500.000 m<sup>3</sup> baino gehiago erauzten direnean. II. eranskinean *“erauzketa industria”* izeneko 3. taldean, dagokion atalean, zulaketa sakonak gaineratzen dira eta, b atalean, gas naturala erauzteko kanpoko industria instalazio guztiak.

Euskal legeriari dagokionez, 3/1998 legeak ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioa egiteko beharra ezartzen du, haren eskumen esparruaren barnean, *“gas naturala eta petrolioa erauzteko instalazioak”* edo zulaketa geotermikoetarako instalazioak aurreikusten dituzten proiektuetarako. Meategietako erauzketen kasuan ebaluazio sinplifikatua eska daiteke *“Zulaketak, zundaketak eta meabilaketak barne hartzen dituen meategi-ikerketa”* egiten denean.

Azken finean, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araudi horretan ez dago apurketa hidrauliko bidezko ez ohiko gasa erauzteari buruzko berriazko erreferentziarik. Ingurumeneko legeriak zulaketa sakonen ingurumen-inpaktua ebaluatzeke beharra ezartzen du ingurumen administrazioak, kasuan kasu, egokitzat jotzen duen kasuetan. Nolanahi ere, gas-hobi baten esplorazio eta ustiaketa proiektu batek eskatzen dituen zulaketa jarduerak bere osotasunean



ebalatu behar dira. Proiektuaren osotasunaren printzipioaren arabera, ezin da lan-plana zatitu araudi hori aplika ez dadin.

Nolanahi ere, antzeman dezakegunez, ikerketa eta ustiaketa proiektuen kasuan zein gas naturaleko ustiategien kasuan, indarreko araudiak ohiko gas naturala eraztearen inpaktua ebaluatzeraz bideratutako jardueren zerrenda finkatu du, eskisto-gasaren erazketa barne hartzen duten zulaketa proiektuen ebaluazio egokia zailtzen duena, bereziki, esplorazio faseetan. Europako Parlamentuari aurkeztutako txostenak <sup>30</sup> araudian dauden hutsuneak aipatzen ditu -zuzentarauan gaineratutako zerrendatik sortua- apurketa hidraulikoa erabiliz gasa erazterakoan II Erako mugak aztertu eta berrikusi beharko bailirateke. Hutsune horiei erantzunez, botere publikoek berariaz jaso beharko lukete ez ohiko gasa erazteko hobiak esploratu eta ustiatzeko eskatutako jardueren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko beharra.

– **Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa.** Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa oso tresna baliagarria da gizakiek egindako hainbat proiektu eta jardueren sortuko dituzten ingurumen-inpaktuak saihestu eta zuzentzeko. Tresna hori botere publikoek proiektu horien aurreko fase batean har ditzaketan erabakien alde aurreko ebaluazio batekin osatu behar da.

Ingurumeneko legeriak ingurumen-kontrola plangintzaren unera bideratu du ingurumen-ebaluazio estrategikoaren bidez. Ebaluazio hori ingurumenaren aldagaia hasiera batetik gaineratzeko helburuarekin burutzen da, planak eta programak prestatzeko eta hartzeko fasean, hau da, aukera eta aldagai guztiak irekita dauden fase batean, jarduera hori ez sustatzeko aukera, aukera zero, barne.

Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa ekainaren 27ko 2001/42/CEren bidez hainbat plan eta programek ingurumenean dituzten eragin ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak gaineratu du gure ordenamendura. Planak eta programak herri administrazio batek ondoren banakako programen bidez bideratu behar diren gizarte beharrak asetzeko aurreikusten dituen estrategia, zuzentarau eta proposamen multzo gisa definitu dira.

2001/42/CE Zuzentarauak bezalaxe, apirilaren 28ko 9/2006 Legeak ingurumen-ebaluazio baten beharra ezartzen du ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketan plan eta programetarako, herri administrazio batek burutzen dituen eta horien burutzapena izaera orokorreko xedapen batek edo gobernuaren erabaki batek eskatzen duenean. Gauzak horrela, ingurumenaren gainean eragin

---

<sup>30</sup> "Eskisto-gasa eta -petrolioaren erazteak ingurumenean eta giza osasunean dituen ondorioak". Europako Parlamentuak 2011ko ekainean argitaratua.



nabarmenak dituzte energia, meatzaritza, industria, lurralde antolamendua edo lurzoruaren erabilera bezalako alorretan II Eren mende jarritako proiektuak etorkizunean baimentzearen esparruan ezartzen diren planek. 2012ko ekainaren 9ko Auzitegi Nagusiaren epaia zera adierazi du: *“la evaluación ambiental, realizada conforme a la Ley 9/2006, de 28 de abril, no excluye la aplicación de la legislación sobre evaluación del impacto ambiental de proyectos, (...), es independiente de ella, y, por consiguiente, puede resultar exigible la evaluación ambiental de un plan o programa y de sus modificaciones aun cuando las instalaciones o actividades que dicho plan o programa autoricen no queden sujetas a evaluación de impacto ambiental. Lo que se deduce del apartado a) del artículo 3.2 de la tan citada Ley 9/2006, de 28 de abril, es que cuando el plan o programa y sus modificaciones sean marco para futuras autorizaciones de proyectos legalmente sometidos a evaluación de impacto ambiental se ha de entender necesariamente que tienen efectos significativos sobre el medio ambiente cuando afecten a las materias que el precepto enumera, entre ellas, ciertamente, las telecomunicaciones, la ordenación del territorio o el uso del suelo”*.

Planak izaera orokorreko xedapen batek eskatu ahal izateko baldintzari dagokionez, 2012ko martxoaren 22ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak, *gaia C 567/10 Inter-Environnement Bruxelles ASBL, 2001/42* Zuzentarauan ezarritako baldintza interpretatu du. Horren arabera, xedapen horretan jasotako planak eta programak *“legezko, arauzko edo administrazioko xedapenek eskatutakoak”* dira, derrigorrezko planetatik ezberdinduta. Epaia ren arabera agindu horren bidez ulertu behar dugu zuzentaraua nazio mailako legeriak xedatutako plan eta programetan aplikatu behar dela, eskumena duen aginteak hori hartzeko beharra ez izan arren.

Gogorarazi beharra dago erkidegoko zuzentarauak ezarritako eta estatuko zuzenbideak jasotako arauak ingurumena babesteko gutxieneko arauak direla, betiere errespetatu beharrekoak, baina autonomia erkidego bakoitzak, alorrean eskumena izanik, babes maila altuagoak ezartzeko aukera eskaintzen dute<sup>31</sup>.

Xedapen horien garapenean, energiaren sektorearekin loturiko planek eskatzen duten ingurumen-ebaluazio estrategikoa aipa dezakegu. Horixe da energia berriztagarrien estatuko planaren kasua, energia berriztagarriak garatzeko gai diren eremuei buruz beharrezkoa den xehetasuna gaineratzen duena. Autonomia mailako energia berriztagarrien planek ere ebaluazio hori behar dute, izan ere, plan

---

<sup>31</sup> Irailaren 18ko Konstituzio Auzitegiaren 166/2002 Epaia.



horiek aurreikusitakoaren arabera iturri berriztagarriak jasoko dituzten lekuen ingurumen-irizpide espezifikoetarako buruz beharrezkoa den xehetasuna gaineratu behar baitute.

Azken finean, Europa, estatu eta euskal mailan jasotako ingurumeneko uneko araudiak apurketa hidraulikoko sistemen bidez ez ohiko gas erauzketa berariaz arautzen ez duela ondoriozta dezakegu. Berezko araudi hori ez dagoenez, ezin da izaera orokorrarekin ezarri ikerketa, esplorazio eta ustiaketa proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio zuzena egiteko beharra. Bestalde, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren kasuan, ingurumeneko araudiak ingurumenaren eragina duten plan eta programei buruzko herritarren erabakian ingurumenaren alderdiak barne hartzen dituen prozesu bat egiteko beharra ezartzen du. Sektore energetikoko araudiak politika energetikoetarako eta baliabide naturalen eta lurraldearen antolamenduan zein hirigintza erabileretan eragina duten baliabideen erabilerari buruz ezartzen dituen plan eta estrategiek ingurumen ebaluazioaren mende egon behar dute.

\* \* \* \*

## **HIRUGARREN ZATIA: EZ OHIKO GASEN USTIAKETA ETA ESPLORAZIO PROIEKTUA EUSKADIN.**

### **7. Ez ohiko gasen esplorazio eta ustiaketa proiektuak Euskadin.**

Behin aurreko gogoetak azalduta, SHESA enpresa publikoak Arabako lurralde historikorako eta inguruertarako ezarri duen ez ohiko gas naturala esploratzeko eta ustiatzeko proiektua aztertuko dugu. Euskadiko Hidrokarburo Baltzua, A.B. enpresa publiko bat da<sup>32</sup> eta haren akzionista bakarra Energiaren Euskal Erakundea da<sup>33</sup>. Horren helburua hidrokarburoak esploratzea, ikertzea eta ekoiztea eta gas naturaleko lur-azpiko metatzeak ikertzea da.

Aurrekarietan azaldu den moduan, proiektu honen jatorria "Enara" hidrokarburoak ikertzeko baimena da. SHESA konpainiak, 2005eko azaroaren 8an, Gaztela eta Leonen eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen "Enara" izeneko hidrokarburoak ikertzeko baimenaren esleipena eskatu zuen. Baimen hori 6 urteko eperako eman zuen Estatuko Administrazioako Industria Turismo eta Merkataritza Ministerioak 75.852 hektareako lauki baterako azaroaren 24ko 1399/2006 Errege Dekretuaren bidez.


---

<sup>32</sup> 279/1983 Dekretua, abenduaren 19koa. Horren bidez Energiaren Euskal Erakundeari "Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S. A. - Euskadiko Hidrokarburo Baltzua, A. B." eratzeko baimena ematen zaio.

<sup>33</sup> Azaroaren 24ko 9/1982 Legeak sortutako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa.



Horren ondoren, SHESAk hidrokarburoak ikertzeko beste baimenak eskatu ditu, Usoa, Mirua eta Usapal izenekoak, eta urtarrilaren 12ko 56/2008, 57/2008 eta 28/2008 Errege Dekretuen bidez esleitu zizkieten<sup>34</sup>. Aipatutako baimenak Euskal Autonomia Erkidegoan, Gaztela eta Leonen, Nafarroan eta Kantabrian kokatuta daude.



Iturria SHESA

Gaztela eta Leonen, Kantabrian eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako «Angosto-1» hidrokarburoak ikertzeko baimena ere jasota dago, azaroaren 24ko 1400/2006 Errege Dekretuaren bidez Industria Ministerioak eman zuena.

Enara ikerketa baimenari dagokionez, aipatu beharra dago onartutako lan-programak hirugarren eta laugarren urte baterako esplorazio-putzu baten diseinua eta haren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoaren eta ingurumen eraginaren azterketa ezartzen duela. Bosgarren eta seigarren urteetarako esplorazio zundaketaren zulaketa aurreikusita dago.

SHESA enpresak zundaketarako erabil zitezkeen hamasei kokaleku aurkeztuz hasi zituen ingurumeneko izapideak. 2008ko abenduan, SHESAk Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioari ingurumeneko agiriak bidali zituen hidrokarburoak esploratzeko hamasei putzuko hasierako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozedura bideratu behar ote zen zehazte aldera. Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusi horrek, hasiera batean, proiektua II Eren arauzko prozeduraren mende jartzea erabaki zuen, ezarritako kokaleku batzuek Natura 2000 Sarean eragina izan zezaketela ikusita.

SHESAk 2009ko uztailaren 23an Ingurumen Ministerioari jakinarazi zion horietako hamabost zulatzeari uko egingo ziola eta putzu bakarra mantenduko zuela, Enara-16 izenekoak. 2009ko urrian SHESAk kokagune bakar batetik desbideratutako bi

<sup>34</sup> 2008ko otsailaren 18ko 42. BOE



putzu zulatuko zituela jakinarazi zuen, Enara-16A eta Enara-16B. Azaldutako ingurumen irizpideen inguruan, ingurumeneko erakundeak ondorioztatu zuten Enara-16A eta Enara-16B putzuak zulatzeagatik espero ziren inpaktuak magnitude eta zailtasun txikikoak zirela eta hedadura murriztua zutela eragindako eremu geografikoari eta herritarrei zegokienez, beraz, garrantzirik gabekotzat jo ziren. Hori guztia kontuan hartuta, ingurumeneko organoak proiektu hori ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozeduraren mende ez jartzea erabaki zuen<sup>35</sup>.

Horren ondoren, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak jakinarazi digu SHESA enpresa publikoak berriro ere bi esplorazio-zundaketa besterik ez egiteko irizpidea berrikusi duela, ez baita baztertzen zundaketa gehiago egitea lortutako datuak biribilak ez badira. Horrela bada, "prebentziozko izaera" duten baimen kopuru gehiago eskatzen ari dira. Hori dela-eta, SHESAk berriro ere bakarka ingurumen erakundeari eskatu dio baimen horren barnean zundaketa gehiago zulatzeke proposamena II Eren prozeduraren mende jartzeko beharra balora dezan. Enara 4 putzuaren kasua da<sup>36</sup>, II Eren mende jarri behar izan ez dena, eta Enara 5, Enara 7 eta Enara 11 zundaketenak. Eusko Jaurlaritzak bere txostenean azaltzen digunez, ziurrenik Enara 3 esplorazio-putzuaren IIE bideratuko da.

Zehaztu beharra dago kasu honetan, ikerketa baimenak erkidegoaz gaindiko izaera duenez, baliabideak esploratzeko eta ustiatzeko egindako jarduera guztiak Industria Ministerioak baimendu beharko dituela, Hidrokarburoei buruzko Legeak xedatzen duen moduan. Era berean, horren ondorioz, proiektua II Earen mende jartzeko eta, hala badagokio, izapidetzeko eskaera baloratzeko ingurumeneko organoa Ingurumen Ministerioari dagokio.

Ararteko erakundeak, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- xedatzen duen moduan, Estatuko Administrazioa bere jarduera eremutik kanpo dauka. Zehaztu beharra dago, kasu honetan, ikerketa proiektuen sustatzailea Eusko Jaurlaritzako Industria Sailean erantsitako erakunde publikoa den EE Eren mendeko sozietate publiko bat dela. Euskal elkarte publiko hori badago gure kontrol-jardunaren barnean sartuta, erakunde honek ordezkatzeko dituen interes publikoen funtzionamendu hobea lortze aldera.

---

<sup>35</sup> 2010eko martxoaren 1eko ebazpena, Aldaketa Klimatikoko Estatuko Idazkaritzarena, hidrokarburoak esploratzeko bi putzuen proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzkoa, Enara-16 zundaketa. [http://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-4434](http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-4434)

<sup>36</sup> 2011ko azaroaren 21eko ebazpena, Aldaketa Klimatikoaren Estatuko Idazkaritzarena, hidrokarburoak esploratzeko putzu bat zulatzeke proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzkoa, ENARA-4 zundaketa, ENARA baimena, Gasteiz, Araba. <http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-19284>



Beraz, kontrol-jardun horren barnean dagokion administrazio baimenak lortzeko egindako jarduerak egongo lirateke. Aipatu beharra dago enpresa publikoaren jarduerak, legezketasunaren barnean eta egokitu ahal zaizkion eskumeneko ahalmenak erabiliz, Ingurumenari buruzko 3/1998 Lege Orokorrean jasotako Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumeneko politikatik sor daitezkeen printzipioen arabera burutu behar direla. Arau horren 5.2. artikulua ezartzen duenez, ingurumenean eragina duten politika publiko guztiak baliabideen aprobetxamendu iraunkorraren printzipioan, zuhurtziaren eta prebentziozko ekintzaren printzipioan eta, hala dagokionean, kalteak zuzentzeko printzipioan oinarrituta egon behar dira.

Printzipio horiek erabili beharreko teknikak eta ingurumena babesteko neurriak jasoko dituen lan-programan gaineratuta egon behar dira. Lan-programan ezarritako jarduerak dira, hain zuzen ere, ingurumeneko administrazioak, hala dagokionean, ebaluatu beharrekoak.

Gauzak horrela, IIE zuzen baterako jarraitu beharreko izapidearen inguruan Ingurumen Ministerioak jarraitutako irizpidea alde batera utzita, sustatzaile publikoak ikerketa eta miaketa fasean zehar bideratutako jarduerak baliabide naturalen zentzuzko erabilera eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio egokia adierazten duen interes publikoa kontuan hartu behar dutela uste izan dezakegu.

Aldez aurretik adierazi izan dugun moduan, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araudiaren helburua ezin da alde batera utzi proiektua zatituz edo haren ondorio metagarriak kontuan ez hartuz. SHESA enpresa publikoak jarraitutako jarduerak, 16 zundaketen proiektua ukatzen duenean *a posteriori* banaka horietako batzuk eskatzeko (gutxienez 6 zundaketa eskatu dira berriro ere), badirudi administrazio-izapideak arintzeko helburuarekin justifika daitekeela lan-programen osoko balorazio egokia lortzeko helburuarekin baino. Gas-hobi baten esplorazio edo ustiaketa proiektu batetik sortutako zulaketa jarduerak euren osotasunean ebaluatu behar dira. Egin daitezkeen zundaketak proiektu ezberdinetan zatitzeak lan-programaren osotasunaren inpaktuaren ebaluazio zuzena zailtzen du, baita proiektu ezberdinen arteko ondorio sinergikoen ebaluazioa ere.

Horretarako, gure ustez aipatutako ingurumen printzipioen eta IIE araudiaren arabera egokiagoa da SHESA lan-programa bakarra aurkeztea Enara baimenean jasotako zundaketa guztiak barne hartuz.

## **8. Plangintza energetikoa Euskadin eta haren ingurumen-ebaluazioa.**

Jorratu beharreko beste funtsezko kontu bat euskal herri-administrazioen jarduna da, energiaren plangintza egiteko prozesuan zehar, ezohiko gasaren erauzpena sustatzeko hartutako erabakiei dagokienez.





Zehazki, Eusko Jaurlaritzak -2011ko abenduak Gobernu Kontseiluan- Euskadiko Energia Estrategia 2020 (EEE 2020) onartu zuen. Tresna horren bitartez hurrengo hamar urteetarako Euskal Autonomia Erkidegoko energiari lotutako erronka eta estrategien plangintza egin da, energia-helburuak eta hori lortzeko jarduerak-ildoak zehaztuz. Erronken barruan honako hauek daude: aurreztearen sustapena eta eraginkortasun energetikoa, CO2 isuriak murriztea, garraiobideetan petrolioarekiko lotura haustea eta horren kutsakorak ez diren eta eraginkorragoak izateaz gain kostu txikiagoa duten energien aldeko apustua, hala nola, gasa eta energia berriztagarriak. Erronka horiekin guztiekin batera, estrategiak zera gaineratu du: Euskadin aplikagarriak diren ezohiko gasa ustiatzeko tekniken bideragarritasuna ebaluatzeko proiektuak garatzea. Hori garatzeko jarduerak-ildo bat ezarri da, Kantauri itsasoko ertzean ezohiko gas aztarnategiak esploratzea eta ustiatzea (M.2.1.2) hain zuzen, bai eta, ezohiko gasaren ustiatzeko arloan, hainbat produktu eta zerbitzuen eskaintza sustatzea ere, esplorazio zundaketetan inbertituz eta baimenak eta epeak arinduz (T.3.3) EEE 2020 izenekoak, bere aldetik, erabaki horien ingurumen-inpaktu nagusien deskribapena gaineratu du baina ez ditu ezohiko gasari lotutako jarduerak aipatu.

Ebazpen honetan jorrotutako funtsezko gaietako bat energia-estrategia horren ingurumen-ebaluazioa egiteko beharra da; izan ere, gasa esploratzeko proiektu eztabaidagarrian eragina duten erabaki publikoak barne hartzen ditu.

Eusko Jaurlaritzak, Ingurumen Sailak bidali dituen txostenetan, adierazi du ez dela halaberrez plangintza estrategikoaren ingurumen-ebaluaziorik egin behar, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren gaineko araudia aplikatuz. Horretarako eman dituen argudioak dira plana agiri politikoa dela, ez administratiboa; ez daukala lurralde-eraginik eta ez duela legez IIEren menpe dauden proiektuen baimenerako testuingurua ezartzen<sup>37</sup>. Hala ere, ingurumenari dagokionez duen garrantzia aintzat hartuta, Ingurumen Sailak ingurumen-ebaluazioko azterketa bat egiteko iradokizuna egin zuen.

Hala, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak ingurumen-ebaluazioko azterketa bat egin du eta, bertan, Ingurumen Sailak horren harira egin zuen balorazio txostenean gaineratu zituen iradokizunak kontuan hartu ditu.

Kontu horri dagokionez, zenbait ohar egin behar dira sektore elektrikoko planen izaeraren eta indarrean dagoen legeriaren xedapenen inguruan.

---

<sup>37</sup> Sailaren jarrera aurrekarietan aipatutakoa da. Ikusi Ingurumen Saileko Ingurumen Plangintzako zuzendariaren txostena, ezohiko gasari buruzko jardunaldi teknikoetan aurkeztutakoa.

[http://www.jornadagasvitoria.com/pdf/ponencias/FRANCISCO\\_OLARREAGA.pdf](http://www.jornadagasvitoria.com/pdf/ponencias/FRANCISCO_OLARREAGA.pdf)



– Energia-zerbitzua bezalako funtsezko zerbitzu baten plangintza etorkizuneko eszenatoki bat eratzeko baliagarria da, ekimen pribatua bultzatuz, administrazioak finkatu dituen helburu publikoen alde. Beraz, plangintza edo programazioa egitea aukerako jarduera bat da. Zentzu horretan, hori egiteko prozedura bat jarraitu behar da eta, beharrezkoak diren izapideekin bat eginez, dauden aukera posibleen artean erabaki bat hartu behar da, betiere, legezkoatasunaren barruan<sup>38</sup>.

Alde batetik, aipatu behar da plan eta estrategia horien –eta osatzen dituzten zehaztapenen- izaera lotesle edo adierazgarria energiaren sektorearen funtsezko zerbitzuaren baldintzaren arabera dela, ekonomia testuinguru liberalizatu batean. Hala ere, zehaztu behar da izaera adierazgarri edo lotesle horrek ez duela onartzeko jarraitu beharreko prozedura aldatzen eta, bereziki, ingurumen-ebaluazio estrategikoarekiko menpekotasuna.

Bestalde, onespina arau batek ezartzen duen ala ez gaiaren inguruan, dagoeneko aipatu dugun 2012ko martxoaren 22ko EJAren epaiak (C567/10 kontua) *Inter-Environnement Bruxelles ASBL* gaiaren inguruan interpretatu duen zentzuaren arabera, hau xedatzen da: arau batek eskatzen du plana edo programa onestea. Epai horrek planen eta programen onarpenaren derrigorrezko izaeraren eta arau batean plangintza egiteko ahalmena xedatzearen artean bereizten du. Ikuspuntu horretatik abiatuta, esan dezakegu ingurumenerako ondorio esanguratsuak dituzten planek eta programek baldintza hori betetzen dutela legerian hori egin dadila xedapen bat dagoenean.

– Oro har, energia-plangintza, elektrizitatearen, gasaren edo energia berriztagarrien azpisektoreetan ezarritakoa bezala, estatuaren eskumenekoa da baina, estatuko administrazioak ezartzeko duen araubidearen oinarriak garatzeko, erkidego mailakoa ere bada.

Aipatutako ekonomia iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak estatuko energia-plangintza burutzeko oinarriak finkatu ditu, bai irismen adierazgarrian, bai loteslean, elektrizitatearen sektoreko 54/1997 Legearen eta hidrokarburoen sektoreko 34/1998 Legearen xedapenen kasuan. Energiari buruzko lege horrek -81. artikulua- Energiaren Biltzar Sektorialaren eginkizuna jaso du, estatuko administrazioaren politika energetikoak autonomia erkidegoekin koordinatzeko. Halaber, aurrezteari, eraginkortasun energetikoari eta energia berriztagarriei lotutako arloak jorratzen dituzten autonomia erkidegoetako energia-planen xedapenak barne hartzen ditu. Tresna horietan definitutako energia-politika

---

<sup>38</sup> Plangintza egiteko jardueraren funtsezko ezaugarriari eta haren aukerako izaerari dagokienez, González Espejo A. aipatu dezakegu “Cuestiones jurídicas asociadas a la planificación energética”, La nueva regulación eléctrica. VII Jornadas jurídicas del sector eléctrico, Civitas, Madrid, 202, 17-55. or.



koordinatu behar da dagozkion planetan ezarritako helburuak lortze aldera, horien artean, tokiko irismena dutenak.

Azken finean, energiaren inguruko estatu mailako gaur egungo legeriak estatu, autonomia erkidego eta tokiko mailako energia-planak aurreikusten ditu. Hala, administrazio bakoitzak, bere eskumenen eremuaren barruan, bere energia-politikari buruzko etorkizuneko aurreikuspenak finkatu behar ditu, gainontzeko plangintza tresnekin koordinatuz eta sustapen helburuen barruan sistemaren eraginkortasunaren, horniduraren segurtasunaren eta ingurumenaren babesaren arteko oreka egokia topatuz. Euskal Autonomia Erkidegoak ez ditu oinarri horiek arauen bidez garatu baina erkidegoetan energiaren sektorearen plangintza garatzeko legezko xedapen horrek, estatuarekin koordinatzeko betebeharrarekin batera, sektore horretan plangintza egiteko xedapena ezarri du.

Euskadiko energia-plana, Euskadiko Energia Estrategia 2020 izenekoa, testuinguru horren barruan kokatu behar dugu. Autonomia erkidego mailako plangintza tresna hori, energiaren sektorean, euskal politika publikoen etorkizuneko helburuak (aukerakoak) zehazteko oinarrizko legerian jaso da. Hori burutzeko plan eta programa horien berezkoak diren prozedurari lotutako eskakizunak bete behar dira. Horien artean, ebaluazio estrategikoa ingurumen arloko legeriaren terminoetan egiteko beharra gaineratu behar da.

– Azkenik, energiaren plangintza "lurralde-eragina duten beste plan batzuen" barruan sartzearen kontua dago, ingurumenari buruzko 3/1998 Lege Orokorraren 1. eranskinak arautu duena, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa egiteko betebeharra ezartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren menpe dauden plan zehatzen zerrenda bat dago, 3/1998 Legearen terminoetan. Kasu horretan zerrendak hizpide dituen planak eta programak lurralde mailako eragina dute. Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa burutzeko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua izan da lurralde mailako eragina duten plan eta programa horiek zeintzuk diren definitu duena. Hala, energiari eta lurzoruaren eta natura-baliabideei dagokienez egiten diren planak eta programak dira horiek, betiere, etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazio prozeduretako baten mende dauden proiektuak baimentzeko testuingurua ezartzen badute. Modu berean, honako plan eta programa hauek lurralde mailako eragina dutela ulertuko da: tokiaren kudeaketarekin zuzeneko harremana ez eduki arren, Natura Sarea 2000 izenekoaren tokietako batean eragina eduki dezaketenak, bai eta nazioarteko garrantzia duten hezeguneetako batean eta ingurumenari dagokionez sentikorrek diren gainontzeko eremuetan (otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 51. artikuluan definitutakoak) eragina eduki dezaketenak ere.





Ararteko erakundeak, aurreko ebazpenetan, adierazi du euskal legeriaren eta planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren gaineko erkidegoko zuzentzarauen arteko lotura ezinbestekoa dela<sup>39</sup>. Zentzu horretan, zehaztu behar da euskal legeria (3/1998 Legea eta 183/2003 Dekretua<sup>40</sup>) 2001/42/CE Zuzentzaruan eta apirilaren 28ko 9/2006 Legean deskribatutako araubidera egokitu behar dela. Oinarrizko izaera duten arau horiek gutxienekoak dira baina, Euskadik dituen ingurumen-arloko eskumenen gauzatzea oinarriz hartuta, euskal legeria zorrotzagoa izan daiteke horren inguruan.

Hori esan ostean, esan dezakegu bai zuzentzarauak, bai 9/2006 Legeak, ingurumen-ebaluazioaren betebeharrak ezarri dutela ondorengo plan eta programen kasuan: ingurumenean ondorio esanguratsuak eduki ditzaketanak, herri-administrazio batek egindakoak eta horiek egitea izaera orokorreko xedapen baten edo gobernuaren erabaki baten ondoriozkoa denean.

Arauk berak ezarri du etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe dauden proiektuak baimentzeko testuingurua ezartzen duten planek eta, Natura Sarea 2000 arautzen duen araudiarekin bat eginez, ebaluazioa behar duten proiektuek beti dituztela ondorio esanguratsuak ingurumenean.

Etorkizunean Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren menpe dauden proiektuak baimentzeko testuingurua ezartzen duten planak zehaztu ahal izateko, proiektuen zerrenda ezarri duten eta indarrean dauden 1/2008 Errege Dekretu Legegileari eta 3/1998 Legeari erreferentzia egin behar diegu. Aldez aurretik aipatu dugun moduan, hainbat energia-proiektu zerrenda horren barruan daude.

*“Etorkizunean proiektuak baimentzeko testuingurua ezartzen dutenak”* esaldiaren esanahia garrantzitsua da zuzentzaraua interpretatu ahal izateko; izan ere, testuan ezin da horren definizioarekin topo egin<sup>41</sup>.

Europako Batzordeak interpretatu duen moduan, planak edo programak eskumena duen aginpideak proiektu bat baimentzeko erabakia har dezala bidea markatzen duten irizpideak edo baldintzak bildu behar ditu. Irizpide horiek eremu jakin batean baimendu daitekeen jardura edo proiektu mota mugatu dezakete; horrez gain, eskatzaileak baimena eman diezaioten bete behar dituen baldintzak ezar ditzakete. Gerta daiteke ere, irizpideen helburua eremu horretako ezaugarri jakin batzuk

---

<sup>39</sup> Gure erkidegoan izapidetzen diren hirigintzako antolamenduko planetan beharrezko den ingurumen-ebaluazioaren eskakizunari buruzko gomendio orokorra ikusi: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_1639\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1639_3.pdf)

<sup>40</sup> 2012ko urriaren 16ko dekretuak indargabetua

<sup>41</sup> Batzordeak 2001/42 Zuzentzaraua aplikatzeko gidan azaldutako irizpideak aintzat hartu behar dira [http://ec.europa.eu/environment/eia/pdf/030923\\_sea\\_guidance\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/environment/eia/pdf/030923_sea_guidance_es.pdf).



babestea izatea. II. eranskinean ezarri da testuinguru hori zenbait irizpide mota zehaztuz ezar daitekeela (kokapena, ezaugarriak, dimentsioak edo proiektuen funtzionamendu-baldintzak, bai eta baliabideak esleituz ere). Hala, testuingurua ezartzeko modu bat planak baliabideak esleitzeko duen moduaren arabera izan daiteke. Baliabide horiek ekonomikoak zein naturalak izan daitezke. Hauxe argi uztea garrantzitsua da: irizpide horiek adierazgarriak dira, ez dira zehatzak.

2012ko urriaren 16ko dekretuak, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, interpretazio murriztaileagoa egin du: *"Se entiende que un plan o programa establece el marco para la autorización en el futuro de proyectos legalmente sometidos a evaluación de impacto ambiental, cuando contenga criterios o condicionantes, con respecto, entre otros, a la ubicación, las características, las dimensiones, o el funcionamiento de los proyectos o que establezcan de forma específica e identificable cómo se van a conceder las autorizaciones de los proyectos que pertenezcan a alguna de las categorías enumerados en la legislación sobre evaluación de impacto ambiental de proyectos o en la legislación general de protección del medio ambiente del País Vasco"*.

Proposamenek eta aukerek energia-estrategiaren plangintza aintzat hartzen dute energia-beharrei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzeko. Erabaki estrategiko horiek beste politika sektorial batzuetan eragina dute, hala nola, lurraldearen antolamendua edo azpiegituren plangintza, hidrokarburoak erazteko jarduerak kontuan hartu behar dituzten ingurumen-babeserako irizpideak ezartzerakoan, besteak beste (34/1988 Legearen 4.2.h artikulua). Bestalde, hidrokarburoak erazteko jardura horiek II Eren beharra duten proiektuen zerrendaren barruan daude.

Ingurumen arloko kontu horiek estatu mailan energiaren plangintza egiteko aintzat hartu dira, bai eta euren energia-estrategiak onartu dituzten autonomia erkidegoetan ere. Adibide gisa Ingurumen Ministerioak 2012-2020 elektrizitatearen eta gasaren sektoreen plangintzaren eta 2011-2020 Energia Berriztagarrien Planaren gainean burutu duen ingurumen-ebaluazio estrategikoa aipatu dezakegu. Hasierako agirian erkidegoetako energia-plangintzen eragina aipatzen da eta, bertan, Euskadiko Energia Estrategia dago. Ingurumen-ebaluazioa egiteko hasiera batean aurkeztu zen agirian azaltzen da erkidego mailako energia-plangintzak plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legean xedatutako prozeduraren menpe daudela. Hala, erkidegoetako hainbat planek eta estrategiek, bakoitzak bere autonomia erkidegoan, ingurumen-ebaluazioaren prozedura bete behar izan dute. Horien artean: Galiziako Energia Plana (2007-2012)<sup>42</sup>, Iraunkortasun

---

<sup>42</sup> <http://www.cmati.xunta.es/>





Energetikoaren Andaluziako Plana (2007-2013)<sup>43</sup>, Nafarroako Energia Plana Horizonte 2020<sup>44</sup> edo Kataluniako Energia Plana 2010-2015<sup>45</sup>.

Beraz, laburbilduz eta aurreko guztiarekin bat eginez, Euskadiko energia-plangintzak (EEE 2020 izenekoaren barruan dagoenak) behar bezalako ingurumen-ebaluazioa behar du, ingurumen arloko legerian ezarritako terminoetan. Hori guztia autonomia erkidegoentzako energia-plangintza arautzen duten legezko xedapenak eta euskal legeriak ingurumenean ondorio adierazgarriak dituzten planentzat ezarri duen ingurumen-ebaluazioaren beharra ikusita.

## **9. Planen eta programen ingurumen-ebaluaziorako eta Euskadi 2020 energia-estrategiarentzako administrazio-prozedura.**

– Eusko Jaurlaritzak bidalitako erantzunean honako ondorio hau islatu da: Ingurumen Sailak azaldutako irizpidearekin bat eginez, ingurumen-ebaluazioa ez da beharrezkoa baina, hala ere, ingurumenean duen garrantzia kontuan hartuta, ingurumen-ebaluazioko ikerketa bat egin dadila iradoki du.

Edonola ere, araututako ingurumen-ebaluazioaren beharra behin zehaztuta, kontua da ingurumen organoak, hau da, Ingurumen Sailak eta oinarri den organoak, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak, hori izapidetzeko jarraitu duen prozedura baloratzea

Ingurumenari buruzko legerian behar bezalako ingurumen-ebaluazioa egiteko ezarri den prozedurak zenbait exigentzia barne hartzen ditu: bi organo eskudunek parte hartu behar dute, planaren onarpena sustatzen duen oinarrizko organoa eta ingurumen-organoa. Azken horrek erreferentziazko agiri bat eta ingurumen-memoria egin behar ditu. Oinarrizko organoak planaren aplikazioak (ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren bitartez) ingurumenean ziurrenik eragingo dituen ondorio esanguratsuen ebaluazio egokia burutu behar du. Modu berean, ebaluazio estrategikoaren beste oinarri bat hauxe da: aurreikusitako jendaurrean aurkezteko izapideetan herritarren parte-hartze erreala ahalbidetuko duen prozesua dago.

Azaldutako kasuan, jarraitu den ingurumen-ebaluaziorako prozesuak hainbat akats garrantzitsu ditu, hala nola, interesatuak dauden pertsonen parte-hartzea ahalbidetzen duen jendaurrean aurkezteko izapiderik burutu ez izana eta

<sup>43</sup>[http://www.juntadeandalucia.es/medioambiente/web/Bloques\\_Tematicos/Calidad\\_Ambiental/Prevencion\\_Ambiental/evaluacion\\_ambiental\\_planes\\_y\\_programas/mapasener.pdf](http://www.juntadeandalucia.es/medioambiente/web/Bloques_Tematicos/Calidad_Ambiental/Prevencion_Ambiental/evaluacion_ambiental_planes_y_programas/mapasener.pdf)

<sup>44</sup><http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/974514CE-0734-4404-AE56-E079DB5F3D0B/177627/EAEIIPENhorizonte2021.pdf>

<sup>45</sup><http://www20.gencat.cat/portal/site/icaen>



ingurumen-inpaktuen ebaluazioa egiteko planean ezohiko gas-hobien esplorazioa eta ustiapena sartu izana.

– Ingurumen-ebaluazioaren azterketa egiteko iradokizuna egin ostean, Industria Sailak, 2010eko azaroan, gizarte-kontraste agiri bat idatzi zuen, interesatuak zeuden hainbat erakunde publiko eta gizarte eragileren iritzia biltzeko aukera ematen zuena. Agiri horrek zenbait gizarte eragilerekin gauzatu zen bilera-prozesuaren oinarria finkatu zuen. Industria Sailak ingurumen-ebaluazioaren azterketa egin zuen eta ingurumen-organoari bidali zion.

Parte hartzeko programa horren kaltetan izan gabe eta EEE 2020 izenekoaren izapidetzearen ondorioz mugatua, antzeman dugu ez dela parte-hartze prozedura arauturik jarraitu ingurumen-ebaluazioaren prozedura osatzen duten agirien eraketari dagokionez. Halaber, ematen du ez direla 183/2003 Dekretuaren 7. artikulua xedatu dituen jendaurrean aurkezteko izapideak burutu. Dekretu horrek ezarri zuen ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren azterketak, plana osatzen duten gainontzeko agiriekin batera, prozeduraren hasierako fasetatik dagokion plana izapidetzeko indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen jendaurrean aurkezteko, entzunaldi eta txostenei lotutako izapideak beteko dituela. Jendaurrean aurkezteko izapidea ez badago plana izapidetzeko prozeduraren barruan, izapidetze horren ardura duen organoak plana eta ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren azterketa jendaurrean aurkeztuko ditu gutxienez 30 egunetan zehar. Jakina, jendaurrean aurkezteko prozedura horrek –Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86. artikulua- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarki bat argitaratzea barne hartzen du. Kasu honetan, ez da jaso jendaurrean aurkezteko izapide hori argitaratu zenik.

– Izapidetzean zehar, ingurumen-organoari erreferentziatzeko agiri bat eta ingurumen-memoria bat eskatu diote, EEE 2020 izenekoaren ingurumen-ebaluazioaren txostena deiturikoa. Ingurumen-organoak 2011ko azaroaren 14an bidali zuen ingurumen-ebaluaziorako txostenak azpimarratu zuen hobetzeko zenbait iradokizun gaineratu behar zirela ingurumen-ebaluazioaren azterketan. Hala, berariaz aipatzen du *“ingurumen-inpaktuen analisia eta ebaluazioa gas naturaleko hobien esplorazio eta ustiapenera ere zabaltzeko beharra”*. Kontu hori, CO2 isurien murrizketari lotutako helburuak betetzearren gaineko hobetzeko beste proposamen batzuekin batera, zabaltzeko agiri laburbilduan jaso beharko litzateke.

Iradokizun horiek funtsezkoak dira ebazpen honetan azaldutako kontua ebazteko. Hala ere, 2011ko abenduaren 13an onartutako agirian ez da ezohiko gas-hobien esplorazioa eta esplotazioaren azterketa eta ebaluazioa jaso eta ez dira *“ingurumenarentzako ekarpena”* deitutako atalean gaineratu.





Horregatik guztiagatik, amaitzeko uste dugu ingurumen-ebaluazio estrategikoak ez zuela behar bezalako jendaurrean aurkezteko izapidea burutu, hau da, herritarren parte-hartzea ahalbidetu eta sustatzeko modukoa; izan ere, EEE 2020 izenekoaren onarpen prozedurari lotutako parte-hartze programa batek mugatu zuen. Modu berean, ematen du energia-estrategiak ez duela ezohiko gas-hobien esplorazioaren eta ustiapenaren gaineko ebaluaziorik egin edo, gutxienez, planean gaineratu.

## 10. Herritarren parte-hartzea eta ezohiko gasa eraztea.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden gas-hobiak ikertzeko eta ustiatzeko euskal botere publikoek erabakiak hartzeko burutu duten prozeduraren inguruan hainbat kontu mahaigaineratu dira, horietako bat, herritarren parte-hartzea.

Lehen baieztatu dugun moduan, baliabide naturalen erabilerari buruzko erabakiek eragin berezia daukate ingurumenaren babesean zein defentsan. Botere publikoek hidrokarburoen ustiapenaren inguruan gauzatu dituzten administrazio prozedurek eta hartu dituzten erabakiek interes publiko argia barne hartzen dute, baliabide naturalen zentzuzko erabilera eta garapen ekonomikoa bezalako helburuen defentsari dagokionez.

Ordena horretan, aitortu beharra dugu ingurumenaren arloan gizarteak behin eta berriro eskatu duela gizarte kolektiboek eta eragileek parte hartu dezaten. Eremu horretan, nazioarteko tresna juridikoek (Rioko Gailurra, Ingurumenerako NBEren 21 Agenda eta Aarhuseko Hitzarmena) parte-hartzearen aldagaia sartu dute ingurumenean eragina daukaten erabakiak hartzean.

Demokrazia eta parte-hartzearen inguruan egin genuen gomendio orokorrean<sup>46</sup>, adierazi genuen herritarren parte-hartzea ingurumen arloko gatazkak kudeatzeko tresna erabilgarria dela.

Nolanahi ere, prozesu horietan ikuspegiak eta interesak poliedrikoak dira. Horregatik, herritarrek egin ditzaketen planteamendu guztiak entzuteko bideak sortzea ezinbestekoa da. Halaber, ingurumenaren inguruko gaietan aktiboa den gizarte zibila dago. Pertsona taldeek, plataformek eta elkarteek ingurumen egokiaren defentsa aldarrikatu dute behin eta berriro, eta interes kolektibo jakin batzuk babesteko sortu dira. Eremu horretan kexa aurkeztu duen "Fracking ez Araba" plataforma aipatu behar dugu. Plataforma hori gasa lortzeko haustura hidraulikoaren erabileraren aurrean (esplorazio-izaera badu ere) sortutako kezka onduz eratu zen.

---

<sup>46</sup> [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_2626\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_2626_3.pdf)



Energia-estrategian eta Euskadin ezohiko gas-hobiak esploratzera eta ustiatzera zuzendutako politika publikoetan eragina duten erabaki publikoak hartzeko prozesuan zehar parte hartuz ikuspen kolektibo hori edukitzeko aukera, erabaki hobeak eta egokiagoak lortzeko abagunea da. Hau da, sistema horren aldekoak diren nazioarteko zenbait erakundek aipatzen duten gizarte lizentzia (aipatutako Energiaren Nazioarteko Erakundearen txostenaren parafrasea eginez).

Parte-hartzea ez da eragozpen formal bat erabakiak hartzeko prozesuan, baizik eta erabaki publikoak eta herritarren artean duten zilegitasuna hobetzeko eta haien egokitasuna bermatzeko aukera. Horregatik, parte hartzeko formula egokiak aitortzea ez da eragozpen edo arazo bat izan behar, baizik eta intentsitate handiko demokrazia batek eskatzen dituen konponbideen beste alderdi bat

Esku artean dugun kasuan, herritarren parte hartzerako prozesu baten beharra sumatu dugu, gutxienez, jendaurrean aurkezteko izapidearen bitartez EEE 2020 izenekoaren ingurumen-ebaluazio estrategikoan zehar. Hala ere, gatazka honetan herritarren parte-hartzea garrantzi handiagoa duen aktiboa izan behar da.

Gure ustez, energia-estrategiaren ebaluazioa, jarraipena edo berrazterketa egiteko prozesuetan herritarrek parte hartu dezaten bideak ezartzea funtsezkoa da ezohiko gasaren esplorazio eta ustiapen prozesuen inguruan sortu den eztabaida bideratzeko. Kontu horren inguruan erakundeen arteko batzorde bat eratu beharko litzateke, eragindako udalek parte hartu dezaten. Izan ere, administrazioen arteko koordinazio eta lankidetzarako mekanismo erabilgarria izango litzateke. Dena den, gizarte zibilak ere parte hartzeko aukera eduki beharko luke, bereziki, gasa erauzteko sistema horren aurka eratu diren elkarte eta plataformek.

Era berean, administrazioen eta elkarte horien arteko topaketak eta bilerak eragin dituen interes publikoak edo batzordeak ezohiko gasaren inguruan gauzatu zituen jardunaldi teknikoek ez dute parte hartzeko beste mekanismo batzuen bilaketa oztopatu behar. Mekanismo horien artean topaketa foro egonkorak daude, gatazkaren inguruan behar bezalako parte-hartze materialaren oinarriak finkatze aldera.

Parte-hartze formulak eta dinamizatzeko teknikak askotarikoak dira. Edonola ere, ulertzen dugu mahai horiek eskumena duten administrazio organoez gain, industria erakundeetako ordezkariak eta auzotarren elkarteen edo elkarte ekologisten ordezkariak bildu behar dituztela, bereziki, ingurumen prozesuaren inguruan sortu edo kokatu diren horiek.

Prozedura horietan, topaketa-mahai bat eratzea, alderdi interesdunek parte har dezaten, ingurumen informazioa zabaltzeko tresna eta proposamenak, salaketak edo bestelako aldarrikapenak aurkezteko bidea da. Modu berean, esperientzia



horiek positiboak izan daitezke iritzi desberdinak hurbiltzeko edo, gutxienez, alderdien aitortzea ahalbidetzeko.

Parte-hartze prozesuei dagokienez, uste dugu tartean dauden administrazioek bitarteko eta borondate politiko nahikoak eskaini behar dituztela kalitateko oinarriko estandar batzuk betetzeko, ingurumeneko auzietan parte hartze aldera. Horien artean, agintariek eta funtzionarioek parte-hartze prozesuetan parte hartzen duten eragile guztiek elkar errespetatzea erraztu behar dute, batez ere, interes kolektiboak defendatzeko eratzen diren elkarten kasuan. Parte hartzeko prozesua baino lehen, bitarteko egokien bidez, administrazioak daukan informazio guztia jakitera eman behar du. Administrazioak formula elektronikoa bilatu behar ditu egiten diren dokumentu edo izapide berriak zabaltzeko (interesdunen artean behintzat). Parte hartzeko prozesuak proposamen ireki batetik aurrera egin behar dira. Eztabaida prozesuak zenbait bitarteko eduki behar ditu, dokumentazio guztia eskuratu ahal izateko, eta ohar eta proposamen guztiak idatziz edo elkarrizketa bideratzen duten parte hartzeko beste teknika batzuen bidez (herritar foroak, herri epaimahaiak) planteatu ahal izateko. Era berean, funtsezkoa da prozeduran interesa duten pertsona guztiek emaitzaren gaineko informazioa jaso dezaten. Informazio horren barruan, erabakiari buruzko informazioa, egindako alegazioei buruzko informazioa eta parte-hartze prozesuan duen eraginari buruzko informazioa sartu behar da.

\* \* \* \*

Kexari lotutako datu guztiak, zerikusia duten administrazioek bidalitako informazioa eta aurreko gogoetak kontuan hartuta, honako ondorio eta gomendio hauek jaso nahi izan ditugu :

### Ondorioak

1. Nazioarteko eta Europako testuinguruan, ezohiko gasa zulaketa horizontalaren bidez eta haustura hidraulikoaren bidez erauzteko sistema ingurumenean inpaktu eta arrisku larriak eragin ditzakeen teknika bat da, bai eta, kasu batzuetan, pertsonen osasunean ere. Edonola ere, ingurumenean duen eragina hidrokarburoen ohiko erauzketaren eraginak baino handiagoa da. Bereziki, teknika horrek behar duen erauzketa putzuen dentsitate altuak eragiten dituen ondorio sinergiko eta metatze-ondorioak gailendu dira.

Zenbait txostenek agerian utzi dute Europar Batasunean ez dagoela ezohiko sistema horrek behar dituen exijentzia teknikoak arautzen dituen eta ingurumenarentzako edo pertsonentzako inpaktu eta arriskuak saihesteko eta



karbono aztarna ebaluatzeko ingurumen-irizpide batzuk definitzen dituen araudi zehatzik.

Europar Batasuneko kideak dira hain zuzen lur-azpitik baliabideak lortzeko prozesu horren gainean berezko araudia emateko eskumena dutenak.

Europar Batasuneko kideak dira hain zuzen lur-azpitik baliabideak lortzeko prozesu horren gainean berezko araudia emateko eskumena dutenak.

2. **Espainiako testuinguruan**, baliabide naturalen zentzuzko erabilera, gas naturalarena besteak beste, botere publikoek ingurumena babesteko duten betebeharra du abiapuntutzat (Espainiako Konstituzioaren 45. artikuluan jaso da) eta horrek baliabide naturalak eta pertsonaren garapen hobea eta bizikaltate hobearen bermea uztartzen ditu. Edonola ere, Espainiako Konstituzioaren 123. artikulua xedatu du legegileak ondasun horiek erabili ahalko dituela garapen ekonomikoa bultzatze aldera.

Gure iritziz, konstituzioaren agindu horrek ondorengo beharra ezarri du: eskumena duen organoak gasa erazteko jardueraren erregulazio sendoa garatzeko beharra. Horren bitartez, baliabide naturalen zentzuzko erabilera eta ingurumenaren babesa uztartze aldera, irizpide tekniko eta ingurumen arloko irizpideak ezarri beharko lirateke.

Hala ere, haustura hidraulikoaren sistemari dagokionez, gaur egun Espainiako ordenamendu juridikoan ez dago hobien ustiapenerako teknika horren gaineko erreferentzia zuzenik egiten duen xedapenik. Horrez gainera, ez dago ezohiko gasa haustura hidraulikoaren bitartez eraztearen gaineko ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorako araudi zehatzik.

Berezko araubide juridikorik ezak ez du putzuak haustura hidraulikoaren bitartez zulatzeko zenbait proposamenen garapena eragotzi, hidrokarburoen hobiak ustiatzeko oro har ezarritako prozedurarekin bat eginez.

Esplorazio proiektu horien garapenak, hala nola, Gran Enara proiektuak, gizarte erantzun garrantzitsua eragin du, hortaz, Espainian eskumena duten botere publikoek egoera hori behar bezala kudeatu beharko lukete.





Ingurumenean duen eragina, herritarren osasunerako arriskuak eta haustura hidraulikoak gasa erauzteko ohiko sistemarekin alderatuz eragin dezakeen karbono aztarna ikusita, Ararteko erakundeak uste du esplorazioa eta ustiapena abian jarri aurretik, eskumena duten herri-administrazioek proiektu horien gauzatzea atzeratzea onartu beharko luketela. Luzapen hori ezohiko hobietatik baliabide natural hori eskuratzeko erabaki estrategiakoaren gaineko ekonomia, gizarte eta ingurumen-balorazio bati lotuta egon beharko litzateke.

Testuinguru horretan, eskumena duten botere publikoek teknologia horren ikuspegi orokorra eduki behar dute, ingurumenarentzako eta giza osasunarentzako arrisku posibleak modu zuzenean ebaluatze aldera. Azterketa horretan aurrezteko energia-politiketan eta energia-eraginkortasun politiketan ezarritako helburuen, negutegi efektua duten gasen murrizketa eta energia-iturri berriztagarrietatik datorren energia-kuota lortzearen betetzea justifikatu beharko litzateke. Ebaluazio estrategikoak zero alternatibak ingurumenean duen eragina barne hartu behar du, hau da, praktika hori ukatu edo luzatzeak edukiko zukeen ondorioa. Modu berean, gogoeta horrek erabaki horren inguruko iritzia helaraz dezaketen gizarte eragileekin elkarrizketa gardena eta irekia behar du, aukera guztiak irekita dauden fase batean.

**3. Euskadiko testuinguruan,** erakunde honek azpimarratu nahi du euskal botere publikoek, Eusko Jaurlaritzak bereziki, Euskadiko Energia Estrategia 2020 izenekoaren barruan dauden xedapen eta helburuak baliatu behar dituztela Euskal Autonomia Erkidegoan dauden gas naturalaren hobien esplorazio eta ustiapenaren ingurumen-inpaktuari buruzko gogoeta gaineratzeko.

Kasu horretan, Euskadiko Energia Estrategia 2020 izenekoaren ingurumen-ebaluazioaren izapidetzeak hainbat akats garrantzitsu ditu. Ingurumen-ebaluazioak ez du behar bezalako jendaurrean aurkezteko izapidea gauzatu herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko eta sustatzeko eta, jasotakoaren arabera, planean ez da ezohiko gas-hobien esplorazioaren eta ustiapenaren ebaluaziorik egin, edo behintzat ez da planean ageri.

Hori dela-eta, Ararteko erakundeak uste du akats horiek konpondu behar direla Euskadiko Energia Estrategiaren berrazterketa egokiaren bitartez; horrela, bi kontu horiek gaineratuko dira ondorengo irizpideekin bat eginez:

- Euskadin ezohiko gasa erauzteak, hirugarren puntuan ezarri bezala, gizarte eztabaida bat behar du, gardena eta irekia, Euskadiko energia-estrategia eta Kantauri itsasoko ertzean ezohiko gas-hobiak esploratzera eta ustiatzera zuzendutako politika publikoen gainekoa.





Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta tartean dauden gainontzeko foru eta tokiko administrazioek ezohiko gasari buruzko mahaiaren eraketa sustatu behar dute. Gizarte eragileek eta herritarren elkarteek, bereziki, ezohiko gasa erazteko aurreikuspenen aurrean eraturako erakundeek mahai horretan parte hartu beharko lukete. Mahai horrek gizarte talde horientzat informazioa eta laguntza teknikoa eskuratzeko mekanismoak ezarri beharko ditu.

- Erabaki estrategikoa behin hartuta eta, iraunkortasunari lotutako irizpideak aintzat hartuta, esplorazio eta ustiapen sistema hori onargarritzat jotzen bada, eskumena duten euskal administrazioek, gasari buruzko mahaiaren parte hartzen duten gainontzeko eragileekin batera, ezohiko gasa erazteko araudi teknikoa eta ingurumen-araudia ezarri beharko lukete, hala badagokio, estatu mailako legeriak ezarritako oinarriak garatuz.
- Haustura hidraulikoari buruzko euskal araudi horrek bereziki sentikorrek diren eremuak kontuan hartu eta baztertu behar ditu, eremuen antolamendu eta lurralde-plangintza egokia eginez, izan ere, leku batzuetan instalazio horiek baimentzea bateraezina izango da. Horretarako, arlo horri buruzko lurralde plan sektoriala egitea komenigarria litzateke, bai eta dagokion araudi sektorialetik kanpo geratu diren eremuak gaineratzea ere, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko ekainaren 30eko 16/1994 Legea besteak beste.

Beste kontu batzuen artean, putzuen estankotasuna, akuiferoei dagokienez; injekzio fluidoak erabiltzea produktu kimiko toxikoak erabili gabe eta injektatutako fluidoan, gas metanoaren eta hobotik egon daitezkeen beste substantzia batzuen gaineko zaintza eta jarraipen plan bat barne hartzen dela bermatzen duten irizpide teknikoak arautu beharko dira.

Ingurumenari buruzko euskal legeriaren barruan xedatutako dagokion zerrandan berariaz jasotzea bultzatu beharko litzateke.

5. Ezohiko gasa esploratzeko eta erazteko proiektuen kasu zehatzean, ingurumen-ebaluazio egokia eta integrala beharrezkoa da.

Gogora ekarri behar dugu proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudiaren helburua ezin dela saihestu proiektu baten hausturaren bidez edo haren metatze-ondorioak alde batera utziz. Hori dela-eta, gas-hobi baten esplorazio eta ustiapenaren ondoriozko zulaketa jarduerak euren osotasunean baloratu beharko lirateke. Horretarako, gure ustez, hauxe da egokiena, ingurumenaren arloko legeriarekin eta ingurumen-inpaktuaren







ebaluazioaren gaineko araudiarekin bat baitator: Enara baimenean, zundaketa putzuen sustatzailea den enpresa publikoak aurreikusitako zundaketa guztiak barne hartzen dituen lan-programa bakarra aurkez dezala.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritako manuairekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Ingurumen Sailei zuzendutako gomendio hau aurkezten da.

#### **84/2012 GOMENDIOA, azaroaren 19koa**

- Arartekoak beharrezkotzat jotzen du, gas naturala esploratu eta ustiatu aurretik, eskumena duten herri administrazioek ez ohiko hobietatik baliabide natural hori lortzearen erabaki estrategikoaren ekonomia, gizarte eta ingurumen mailako balorazioa egin dezaten.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak -Industria Sailaren bidez- Euskadiko Estrategia Energetikoa 2020 berrikus dezan gomendatzen dugu, Euskal Autonomia Erkidegoan antzemandako gas naturaleko hobien esplorazioaren eta ustiafetaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa gaineratzen duen ingurumen-ebaluazio egokia gaineratze aldera.

- Ingurumen alorreko erabaki eta balorazio horiek gizarte eztabaida gaineratu behar dute, gardena eta irekia, eta horretarako ez ohiko gasaren inguruko mahai bat sortzea proposatzen dugu.
- Era berean, egokitzen jotzen dugu, eskumeneko alor ezberdinetan, hidrokarburoen ez ohiko hobiak esploratu eta ustiatzeko teknikaren araudi zorrotza eskaintzea. Era berean, botere publikoek berariaz arautu beharko lukete ez ohiko gasa erauzteko aztarnategiak esploratu eta ustiatzeko eskatutako jardueren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko beharra.
- Ez ohiko gasa esploratzeko eta erauzteko proiektuek ingurumen-ebaluazio egokia eta integrala behar dute. Horretarako, Enara baimenean zundaketa putzuen enpresa publiko sustatzaileak eskumena duen ingurumeneko organoari lan-programa bakarra aurkeztu beharko lioke, aurreikusitako zundaketa guztiak gaineratuz.

